

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA



AZPEITIAN

Trikitriariaren Omenezko Jaia

Oraindik gogoan dadukagu Usurbillen izan genuen jaialdia. Bertan, trikitriaxa eta trikitriariaren omenaldia ezezik, herri osoaren jaialdia zela, argi eta garbi ikusi zen zerbaite da. Egun hura gogoan izango dugu bizi geran artean.

Eta aurten, Loiolako Gazteek antolatutako, Apirilaren 8an, Azpeitian, omenezko jaialdi bikainik izango dugu. Izan ere AUNTXA, ARBE, BITARTE, EPELDE, EGURROLA, ITURRIBIDE ANAIK, herriz-herri, hauzoz-hauzo, hainbat erromeria eta jaialdi eskaini izan dizkiguten horiek, txalotzeko, jaitzeko, zoriontzeko asmoz jenderik asko bilduko da Azpeitian. Urteetan zehar amaika txoko, baserri, familia alaitu duten hauek, ongi merezia dute.

Gu ere, ezin ba horrelako jaialdia izanik, elkarriketarik egin gabe egon. Asmo horrekin Azpeitira jo dugu.

SOIÑU JOTZAILEAK

AUNTXA urrestildarra dugu aurrez aurre, mahai inguruan, eta ohi duen etorriaz hitzegiten hasten da:

—Aspaldidanik hamaika saio egin degu, bai. Ez dago inguru hauetan ezagutzen ez gaituenik. Hamasei urte nituala hasi nintzan, eta geroztik soiñua jotzen zenbat ordu pasa dudana, Jainkoak bakarrik daki. Ezin gabea saio luzeak kontatu ezin halakoak izan dira. Migel "Iturbidek" nik bezin ondo daki horren berri.

—Baina hemendik kanpora ere, erromeriarik alajtu ahal duzue?

—Gipuzkoako herri gehienak korritu ditugu soiñu jotzen. Nafarroan ere askotan izan gera. Ipar aldean ere bai inoiz. San Fermi-netara, Iruñera, hutsik egin gabe urtero. Oraindik ere gogoan daut, behin zezena gelditu eza gendueala ta, gogor hartu gintuen ertzainak, halako larrialdia ere pasa genduan. Baiñan, gaitontzean egun eder asko bota izan degu Iruñean.

—Momenturik, unerik zailenak,

gogorrenak, AUNTXA?

—Neretzat gogorrena Garizuma izaten zan. Apaizaren esanak edo bultzata, amak soiñua giltzapean jartzen zidan, Pazkoa bitarte ez nuan soiñua jotzerik izaten. Mote-lak, ez zan Garizuma nahi orduko pasatzen.

—Eta zu, BITARTE, nongoa zaitugu?

—Zumaiarra, Bitarte baserrikoa. Berrogeita hemeretzi urte dira jaiotzen nintzala, eta hamalau urte ezkerroztik soiñua jotzen nabilazue.

—Maisurik izan ahal zenuen?

—Ez gera solfeo bidetatik abiatuak, bazenik ere berandu arte ez genuen jakin. Maisua, ordea, beharrezkoa du soiñu joleak, leen pausoak emateko behinik behin.

—Lehen eta orain berdin jotzen ahal da soiñu txikian?

—Airea zertxobait aldatu bada ere, berdintsu jotzen dala uste det.

—Piezak nola ikasten dituzue? Zeurok musikarik sortzen ahal duzue?

—Musika gehiena besteengandik jaso deguna da, han eta hemen entzunaz ikasi deguna. Hortaz

gainera geuk ere sortu ohi degu, bai.

—Zer da zuretzat, soiñu-jotzaile zeranez, pozgarriena?

—Plazan, bete betean, jendea dantzan ikustea. Usurbillen gertatua, esate baterako, aparta izan zan. Jendeak dantzarik egiten ez badu hoztu egiten gera. Bertsolariak, esaten dutenez, jendaurrean hazi egiten omen dira. Guri ere horrelako zerbaite gertatzen zaigu.

Gustora segituko genuke hizketan, baina ARBE ere zai dadukagu. Jakin dugunez, ARBE musikari bete bete dugu, ofizio askotakoa. Soiñu jotzaile, tamborero, dultzainero ezagutu duen jenderik ere bai bait dago.

—Noiztik zaitugu soiñu jotzaile, ARBE?

—Hamazazpi urte nituala hasi nintzan soiñua jotzen. Panderista laguntzaile asko ezagutu ditut, Leandro azkoitiarra, Jose Mari Iturbide, eta beste batzuk.

—Non sortu dira, zure iritziz, soiñu jotzaile gehienak?

—Azkoitian eta bere inguruetan dudarik gabe. Hemen dago trikitriariaren kabia. Martiretan egiten ziren erromeriak, zein baiñu zeinek jende gehiago bildu, "korro" haundiagoa egin. Hura zan giroa, hura. Geroztik, horren antzekorik, noiz behinka baizik ez da ikusten.

—Soiñu jotzaile gazterik sortzen ahal da?

—Gazte jendea su ta gar hasten da, geure familian ere ezagutu dugu hori, baiña irauteak ematen ditu lanak. Erraz aspertzen dira. Soiñu txikiak bere mugak dauka. Solfeo eta musika ikasiz beste bide batzuk dituzte gogozkoak.

—Zer eskatuko zenieke, ikasten hasi gogotan dauden gazteei?

—Gazteak, ikas dezan, hiru gauza behar ditu. Maisu on bat. Guk, zorionez, Elgeza zana ezagutu genduan, bai bere alboan ikasten saiatu ere. Maisu on batengana jotzen badu, gazteak lanaren erdia egiña du. Iraupena ere behar du eta hortarako egokia izan. Jardu-

NON ZER

- **MATEMATIKA ETA ERDEROMANOAK**
Larresoro 3 garrenean
- **EUSKALZALETASUNA ETA FINANTZAK**
Ansola 5 garrenean
- **EUROPAKO LANGILERIA**
Iza 5 garrenean
- **IDEOLOGIKERIAK ETA NORKERIAK**
Azurmendi 6 garrenean
- **ELIZTAR GERALAKO**
Mujika 11 garrenean

naren poderioz bakarrik ez baita ikasten.

EPELDE ere geure artean dugu ba, eta ez dut uste zenbait galderari erantzun gabe libratuko denik. Azkoitiarra dugu, eta Martiretan, esan digunez, saio luzeak egin. Berrogei eta hemezortzi urtean oso sasoiakoa ikusten dugu.

—Hemen entzundakoaz gain, besterik esan nahi ahal zeniguke?

—Gauza berri gehiago esatea ez da erraza izango.

—Zuen saioetan, EPELDE, jardunaldietan ezere eragozpenik izaten ahal zenuen?

—Noiz edo noiz, "dantza lotua" jotzeagatik izaten genituen halako eztabaidak. Ez zan broma, gero. "Aingeru guardakoak" berehala bidaltzen zizkiguten isil eratzeko.

—Apaizak ez zenituzten aldeko izango...

—"Inpernuko auspo jotzailetzat" ere hartu gaituzte, zenbait apaizek. Dirudenez, gaiztakerirako edo, bide jartzen omen genuen. Geroztik, gauzak ederki asko aldatu dira. Igaz, trikitriariaren jaialdian, soiñu jotzen zerna irabazten ari giñala ere esan zigun apaizak.

—Soiñu joaldiak, neketsuak ahal dira?

—Erromeriak ez zitzaizkigun hain nekagarri. Okerrera joan etorria izaten zan. Ordu luzean, soiñua bizkarrean, bizikletaz eta oiñez, bide aldatuaz askotan. Horrek nekaten gintuen. Behin baiñu gehiagotan gan osoa erromerian eta bidetan pasata, oherik narrastu gabe joan ohi giñan lanera. Hemen gaudenok horrelakoak ezagutu ditugu. Ez zan txantxetako gauza.

Gertaera, oroitzen franko aipatzen digute trikitriariak, bakoitzarekin liburu oso bat betetzeko aintzat bai, Baina, goazen pandero jotzaileengana.

PANDERO JOTZAILEAK

Soiñu jotzailea bezain beharrezkoa da pandero jotzaile trikitriaxa osatuko bada. Bai Egurrola, bai Iturbide anaiak, damurik ez denak, Azpeitian aurkitu ditugu.

EGURROLA ere azkoitiarra dugu eta hamazazpi urtetan ekin zion pandero jotzeari.

—Zaila ahal da panderoa jotzea EGURROLA?

—Askok uste baiñu zailagoa, ohitu arte behintzt. Jardunaren jarlunez eta aireari jarraituz ikasten da. Panderoa erabat nabarmena da gaizki jotzen danean.

—Soiñu jotzaileekin ondo konpontzen ahal zerate?

—Bai. Gehienak urteetan elkarrekin ibilli ohi gera, eta beharrezkoa zaigu elkar ondo hartzea, elkarri laguntzea. Elkar ondo ezagutu, bata besteari lagunduz ekin.

ITURBIDE ANAIK ere geurekin ditugu. Baina, esan bezala, ez denak. Ezbeharrez izter bezurrean min harturik Patxi Iturbide gaitontzean aurkitzen da. Lehenbaitlehen senda dedila opa diogu.

Migel eta Jose Mari Iturbidetak erantzuteko prest daukagu.

—Hiru anaien artean zenbat urte osatzen duzue?

—Oraindik gazte samarrak gera. Ez gera atzo goizekok, baiña ez hain zaharrak ere. Danera ta

ehunda larogeita sei urte besterik ez bai degu.

—Hiru anaietan nor hasi zen lehenen?

—Patxi degu zaharrena eta bera hasi zan panderoa dantzatzeko. Geroxeago geuri jotzeko gogo eta irrikia sortu zitzaigun, eta orrelaxe hasi giñan.

—Panderoa, lehen eta orain, berdintsu jotzen ahal da?

—Hala esango genuke. Orain pandero berriak egiten hasiak dira, bai Larruzkoak baiña plastikoz egindakoak zenbait gogozkoak ditu. Baiñan ez dakit ba, soiñu arin eta simplea ez ote duten ateratzen. Dana dala, gu lehengoarekin kontentua gaudu.

—Eta panderoa jotzen luzaroz jarraitzeko asmotan?

—Nekepean bizi geran aldetik, umore pixkat ez zaigu kaltegarri izango. Jainkoak osasuna ematen digun bitartean hortan segitu bearko.

—Pozik ahal zaudete Azpeitian egiteko asmotan zaizuen omenalgu. Honek asko pozutzen gaitu. Horrelako jaialdien bidez, gehiago ezagutuko gaituzte, eta gaitontze-ko herritara jotzera joateko deiak ere ugalduko zaizkigu. Jarraipenik izaten du egun honek.

—Zer eskatuko zenukete guttion izenean, egun horretarako?

—Guk anaia bezela, eta gaitontze-koak lagun min direlarik, Patxi gure artean ikusi nahi genduke egun horretan. Zauriturik dago eta min emango liguete egun hortan gure artean ez egoteak. Ea bada sendatzen zaigun.

Guk ere berdin desiatzen diogu. Nahigabe eta ezbeharrak bapatean etorri ohi zaizkigu. Sendatzeak, berri, lanak ematen ditu. Ea bada, Patxi, lehen bai lehen bizkortzen zeran.

ANTOLATZAILEAK

Loiolako Gazteek antolatua dela esan dugu, eta hemen daukagu horietako bi: Milagros Eiguren eta Esteban Larrañaga.

—Usurbilgoari jarraipena eman baiñu ez diogu egin —dio Milagresek—, eta aurtengoa antolatzen asko lagundu digute usurbildarrek. Pausoak erraztu dizkigutela esan dezakegu.

—Halaz ere pauso eta ibilera ugariarik eman beharko zenuen ez ta, Esteban?

—Horrelako jaialdia antolatzeak, lotu beharrezko hari mutur asko ditu berekin. Antolaketa, zabal-kundea, harremanak, eta abar.

—Eta jaialdiak dituen gastuak?

—Lehenengo giro hura hoztu zen pentsatzen genduan, baiñan trikitriariak gogoan hartzen dituan jendea badagola ikusten dediarekin?

—Donostiako Aurrezki Kutxak ordaintzen ditu. Berari eskerrak, jaialdi au egin ahal izango degu.

Ea bada, egun gogoangarri honetan pozik izango gaituzue Azpeitian. Gu ere trikitriariak entzuteko eta dantzaldi batzuk egiteko prest gaituzue eta, Agur, beraz, zorionak eta laster arte. Ea Patxi Iturbide agurtzeko zoria izaten dugun.

MIKEL UGALDE

NERE BORDATXOTIK

Agindua zor dalarik, goazen Azpeiti'ko goraberak esatera.

Neurketa bikaina ikusi genduela esanaz asiko gera. Ala aitortuko dute ikusi zutenak, eta sarrera ona izan zan Azpeiti'n. Jendea ondo zala adierazi nai genduke onekin.

"Iruntxiberri" irabazteko, bietako batek ia bera añaakoa bear zuela gure ustez, ari gihan idatziaz.

Eta igandean, Errazkin'go Argiñarena "Iruntxiberri"ren pareko agertu zan. Barberia arruiztarrak lagundu zion bere modura, baiña jokoa irabazi zuena Argiñarena izan zan. Gauzak diran bezela.

Bakarika zortzi edo hamar kilometro egiteko, bear bada, ezta korrikalari ona ta puntakoa izango.

Seireun metrotik seireun metrera txandatuaz jokatzeko, oso ona.

Indarra, gaitza ta nerbioa, daretik ba-du mutiko onek. Bere lagunak sei buelta ematen zituenerako berri-berri geratzen zan; zearo prexkatuta asten zan.

Ikusi egin bear ziran aren sarrerak eta joaldiak!

Jokoa asi aurretik, "eun berrogeiri" dirua, "Iruntxiberri"ren alde.

Kilometro batzuk pasata gero ere, jarraitzen zuen gipuzkoarren aldeko diruak.

Erdi-lanetara iritxi ziranerako aldakuntzak asiak ziran. Bikotearen alde deadarrez asi ziran korredoreak.

Arruiztarrak kunplitea bakarrik egiten zuen; bere egin-kizuna betetzea, al zuen moduan.

Laguna zuen sasoian, Argiñarena'k etzion pakerik ematen aiar txikiari. Jo egiten zuen gogotik, eta orpotan jartzen zitzaion.

78'garren bueltan, berebiziko sarrera bat jota, pasa egin zuen; aurrean jarri zitzaion. Orduantxe jarri zan auzia gaizki "Iruntxiberri"rentzat. Lagunak ateratako bentajari pixka bat eustearekin naikoa zuen Barberia'k, eta ortantxe alegindu zan.

Azkenera ta gogorrigo agertu zan errazkindarra, ezi gaitza dan zaldi gazte bat bezelaxe.

Aren egon ezina! Aren jo bearra!

Gizon bakarrak ezin ezer egin olatu aren kontra, ona izanik ere.

Bikotea osatzen zutenetako bat bakarraren pareko izan zan Azpeiti'ko plazan. Argiñarena'k atera zituen gaztainak danbolifietik; ark erabaki zuen arazoa.

Bikote irabazleak egindako lana agertzen dizuetegu ondoren: Lenengo kilometroa, 2 minutu ta 58 segundoan.

Bigarrena, 6 minutu ta 8 segundoan.

Iruigarrena, 9 minutu ta 25 segundoan.

Laugarrena, 12 minutu ta 44 segundoan.

Bosgarrena, 16 minutu ta 2 segundoan.

Seigarrena, 19 minutu ta 25 segundoan.

Zazpigarrena, 22 minutu ta 49 segundoan.

Zortzigarrena, 26 minutu ta 6 segundoan.

Bederatzigarrena, 29 minutu ta 22 segundoan.

Amargarrena, 32 minutu ta 46 segundoan.

Amaikagarrena, 36 minutu ta 13 segundoan.

Amabigarrena, 39 minutu ta 34 segundoan.

"Iruntxiberri"ren lana era ontan izan zan:

Lenengo kilometro, 3 minutu ta 4 segundoan.

Bigarrena, 6 minutu ta 8 segundoan.

Iruigarrena, 9 minutu ta 35 segundoan.

Laugarrena, 12 minutu ta 53 segundoan.

Bosgarrena, 16 minutu ta 10 segundoan.

Seigarrena, 19 minutu ta 35 segundoan.

Zazpigarrena, 22 minutu ta 57 segundoan.

Zortzigarrena, 26 minutu ta 15 segundoan.

Bederatzigarrena, 29 minutu ta 45 segundoan.

Amargarrena, 33 minutu ta 14 segundoan.

Amaikagarrena, 36 minutu ta 45 segundoan.

Amabigarrena, 40 minutu ta 15 segundoan.

Giro zoragarria izan zuten: aitzekirik txikiena ez emateko modukoa.

Plazako uztaiak ere oso kondizio onetan zegoen: kristala bezin garbi, ta ondo sendoarekin. Ez zulerik, ez putzurik, ez inongo eragozpenik. Aparteko lantokia zegoen lana egin nai zuenarentzat, eta egin gabe etziran gelditu.

Asko egin zuen "Iruntxiberri"k galdua zegola ikusirik egiteko.

Aurretik etsipena artua bai zegoen irabazterik etzeukala.

Ogeitazortzi urte ditu Argiñarena errazkindarrak; emezortzi urte, Barberia arruiztarrak.

78'garren bueltan Argiñarena'k aurrea artu zionean, "au joan dek!", esan genduen geurekiko.

Barberia gazteak batere erantzutera ezker, bikoteak irabaziz zuen jokoa.

Jendea gustora irten zan plaza. Pin eta gogotsu egin zuten lana.

Joandako damutan etzan inor etxeratu, korrikalariak ikustera joandakorik beintzat. Jokolarren berri eztaigutu.

MENDIZABAL BIGARBENA

Azkoiti'ko berriak gaurko alean emango genizkitzutela agindu genizuten joan dan astean. Okerrak izan dira tarteko.

Egundoko oiñazeak asi Mendizabal gazteari arriari eldu zion batean. Amar milla duroko joko osoa galdu du plaza-ratu gabe. Etzeukan besterik egiterik, etzan gauza ta.

-oOo-

Gorputza ondo eztagonean alperrik alegin danak, inola ere ezin azaldu egiten zenitum lanak. Ai, amar milla duro ez tira errez pillatzen diranak,

baiña geiago balio askoz gizonaren izen onak.

-oOo-

Uste gutxien degun garaian ba-dator txarrerakoa, supritzen dezun gerri-min ori zuretzat kalterakoa. "Urtain" gazteak izan du orain egokiera bapoa, nekatu gabe irabaziaz lendabiziko jokoa.

KUKUA

Esaera zar asko daukagu ondo gogoan artzeko, oraintxe dala egun batzuek Amabirjiña Martxoko. Egazti baten zai emen gaude eztaarriak gozatzeko, kuku maitea garaia dezu dakizuna kantatzeko.

-oOo-

Negu beltzea nzure otsik ez, eta tristura begira, udaberrian or asten zera zugaztiik zugaztira; zai gaude zure kantu otsa noiz elduko dan belarrira, txanpon batzuek artu gabe ni ez naiz irtengo mendira.

ARRANTZALEAK

Arrantzaleak ur-gain orretan darabilkiten tratua, zerbait nai eta ezin billatu, ori atarramentua! "Antxua merke" deadarrik ez, jende dana mututua, gure itxaso ederra ere ez ote da antzutua?

-oOo-

Beti ez al da egongo, noski, orain dagon bezin antzu, bestela gure arrantzaleak laister dira negar-putzu; gauzak aldatzen ezpazaizkie ezin izan zorientsu, neguan irabazi ez eta udaberrian berdintsu.

-1-

Susto ederra eman nieten lengo batean etxian, sano ta ondo oiñez irten da bueltatu berriz kotxian. Aspaldi ontan «barizarekin» nenbilen baldar antxian, amabost egun igaro ditut gaixorik «Residentzian».

-2-

Zaiña lertzea peligrrosoa dala asko nola dioten, artu eta ni operatzera laister eraman ninduten. Berez berritxu xamarra dana gaitz da ixilik egoten, kirofanoan onoko bertso kaxkar au bota nioten.

-3-

«Lasaitasun bat izugarria daukat nere barrenean, nere burua ikusten baitet txit oso esku onean; ordua da-ta, mediku jaunok, asi zaitezte lanean, bazkari eder bat egingo degu ondo jartzen naizenean».

-4-

Pena bat daukat: jakintsu baten eran idatzi ezifia, bear bezela nik eskertzeko Perez Iñigo'k egiña. Bultoz aundia etzera baiña bai langillea ta piña, ordubeteen kendu didazu neronen ankeko miña.

-5-

Anka bat neukan txit itxusia, baldarra eta astuna, arrigarria ordubeteen berakin egin dezuna; buru argia, esku bizkorak, ben-benetako zalduna, zorienttua zure eskutan ni jarri nintzan eguna!

-6-

Gauzak ederki kontatzen dira emen ikusi ta gero, nik ain ederki ipintzerikan ez nuen beintzat espero.

Egia da-ta, aitortu bear, ni operatu ezker, iruditzen zait ote nagoen ogei bat urte gaztego.

-7-

Laguntzailletzat berekin dauka Julen Bereziartua, an Azpeiti'ko parajerikan ederrenean sortua; au ere dago Euskalerrian fama aundia artua, asko baigera jasotakoak oien lanaren frutua.

-8-

Biok apalak ta langilleak, biok sendagille onak, au ao batez aitortutzen du zuen eskutan egonak; eztituzute zuek billatzen tituluak eta sonak, baizik zuentzat nekeak eta besterentzat zorianak.

-9-

Gaur enfermerak goratzeko nik uxatuak ditut lotsak, toki gutxitan ikusi ditut orrelako neska-motzak. Leku oietan enpliatzeko oiek dira aproposak, aingeru baten irudia ta danak oso kariñosak.

-10-

Urte batzuek igaro bear enfermera ikasteko, ondorenean Jainkoak jakin zenbat gauza ikusteko; min daukanari miñak arindu, triste dagona pozteko, azer nolako opizioa zerua irabazteko!

-11-

Gau-erdian or korrika datoz gaixoaren ingurura, al dan azkarren kendu naiean daukan barruko tristura; beti gogoan eduki nunbait Kristo'ren agindu ura: «lagun urkoa maiteko dala geure buruen modura».

-12-

Bertso onekin ematen diot gaurkoari bukaera, ta kontseju bat noa oraintxe gazteari ematera: bear duenak neska umilla, ona eta biotz-bera, pentsatu gabe artu dezala gaur bertatik enfermera.

Manuel Matxain Aiete

BERTSO BERRIAK

Zain-auditua edo «barizetarik» operatu berria dute Manuel Matxain bertso-jartzaille bizkorra. Perez Iñigo ta Bereziartua jaunak izan ditu sendalari. Eskertsu dago bertsolaria jaun agurgarri oiengana.

Ta esker ori, ondoren irakurriko dituzuten bertsoetan agertzen du garbiri.

Susto ederra eman nieten lengo batean etxian, sano ta ondo oiñez irten da bueltatu berriz kotxian. Aspaldi ontan «barizarekin» nenbilen baldar antxian, amabost egun igaro ditut gaixorik «Residentzian».

Zaiña lertzea peligrrosoa dala asko nola dioten, artu eta ni operatzera laister eraman ninduten. Berez berritxu xamarra dana gaitz da ixilik egoten, kirofanoan onoko bertso kaxkar au bota nioten.

«Lasaitasun bat izugarria daukat nere barrenean, nere burua ikusten baitet txit oso esku onean; ordua da-ta, mediku jaunok, asi zaitezte lanean, bazkari eder bat egingo degu ondo jartzen naizenean».

Pena bat daukat: jakintsu baten eran idatzi ezifia, bear bezela nik eskertzeko Perez Iñigo'k egiña. Bultoz aundia etzera baiña bai langillea ta piña, ordubeteen kendu didazu neronen ankeko miña.

Anka bat neukan txit itxusia, baldarra eta astuna, arrigarria ordubeteen berakin egin dezuna; buru argia, esku bizkorak, ben-benetako zalduna, zorienttua zure eskutan ni jarri nintzan eguna!

Gauzak ederki kontatzen dira emen ikusi ta gero, nik ain ederki ipintzerikan ez nuen beintzat espero.



Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa



EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikai Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserri, lur-tresnak ta abar Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde

BOUTIQUE

Bnekane

Gazteen, neska - mutilen, Boutique

31 agosto, 5 Urrutizkiña: 41 18 75

— DONOSTIA —

JOSE ZINKUNEGI'REN

OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4 DONOSTIA

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutizkiña: 41 20 65 DONOSTIA

TRANSPORTES **azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alcantar, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381 Aptdo. 1381

GAZTETXOAK

Oso ahazturik eduki ohi ditugu. Ez aundien arrazoiak uler-
tzeko adinean sarturik daude ta ez umeak bezain eskurakoi di-
tugu. Oso gogaitkarri eta bihurri gerta ohi zaizkigu. Ez dakigu
zer egin, ez dakigu nola asma. Azi eta zentzatu litartean pa-
kean uztea erabaki ohi dugu.

Baina oso garrantzizkoa dugu gizonaren bizitzan gaztetxo aro
hau. Zaila bezain ajolazkoa. Gizon izan nahia, askatasunaren
egarria, bere buruaren jaun eta jabe izateko irrika nabari zaiz-
kio gaztetxoari garai hontan alde guztietatik. Gaiztotzen ez, gi-
zontzen ari den ezaugarri dira baizik gaztetxoaren aldaketa, ezin-
egon eta bihurrikeria hauek.

Lagun on baten beharra du, beraz, gaztetxoak. Ez, noski, za-
palduko duen lagun txar baten beharra, askatasuneko bidean
oinez erakusten lagunduko dion lagunaren beharra baizik. Gal-
deraz eta jakin minez beterik dago gaztetxoak. Maite minez leher-
zorian aurkitzen da. Noraezean aserre. Eguraldia bezain aldakor.
Gogor eta zipotz bezain beraxka eta leial.

Eta gaztetxoak ain sasoi zail eta garrantzizkoan bakarrik eta
umezurtz utzi ohi dugu. Edo lasaikerian eta zabarkerian gal da-
din edo askatasun guztia kentzen dion gehiegizko arretaz ito.

Umezurtz etxean. Zorioneko bizi beharrak estutzen ditu eta
aztoratzen neurritz gain gurasoak. Ez dute gaztetxoei begiratzeko
ez denborarik, ez aldarte onik. Ez dute gaztetxoek etxean aurki-
tzen maitasuneko eta errespetozko giro alai eta goxorik. Ez dute
barruko korapilo estu eta nahasientzat erantzunik jasotzen. Ez
bait daude berauen gurasoak aski jantziak eta gaituak.

Umezurtz eskolan. Ez daude eskolak adin honi begiraturik
eratuak. Ez daude hauen arazoei erantzuteko taxutuak. Gizarte-
ko maila desberdinen euskarri ditugu. Batzuk goenean eta bes-
teak, gehienak, barrenean gerta ditezten moldatuak dauzkagu. Ira-
bazle eta gaitzaille gertatuko diren jokoa jokaarazten zaien leku
dugu eskola. Ez gaztetxoak gizontzen ditugun toki.

Umezurtz jolasetan. Ez irakurgai egokirik, ez zinerik, ez dan-
tza-lekurik dute berentzat. Galerazia daukate telebistako zenbait
gauza ikusteak. Debekatua zenbait dantzategi eta zinemetan sar-
tzea. Ez da egiten gaztetxoei begira ez libururik, ez zinerik, ez
jolasik. Tresna bezala erabili besterik ez ditu egiten gaurko gi-
zarteak.

Umezurtz ekintzetan. Badu gaztetxoak irudimena, indarra, egon-
ezina. Alaz guztiz ere ez zaio sortzaile, egile eta ekintzaile izate-
ko biderik ematen. Dena aundiagoen esku dago eta hauek jar-
ritako molde barruan ibili behar izaten dute. Ez zaie dagozkien
mailako ekintzak egiten uzten. Ekintza bideetara eramaten di-
tugunean ere, zoritxarrez, aundiagoak, talde jakin batekoak, eza-
rritako bide, egitarau, iritzi, jokabide eta asmoen barruan sar-
tzen diren ekintzatarak bortxatzen ditugu. Ez diegu bide zabalean
ibiltzen uzten. Buru-berotze eta itsutze baten bidez astindurik
batera eta bestera trapu tzarrak bezala erabili ohi ditugu.

Gaztetxoak aukeratu behar duena aukeratzeko eta erabaki behar
duena erabakitzeko gauza egin behar dugu, gai alegia. Au-
kera-maukera egiteko nor egin behar dugu, bere buruaren jaun
eta jabe. Buruz argi eta jantzia, bihotzez sendoa, askatasuneko
lirain. Ez dugu gaztetxoak gure interesetarako baliatzeko eskubi-
derik.

MATEMATIKA ETA ERDEROMANOAK

Eguneroko gertakaria oso ezagu-
na da: euskaraz dakigun ia guz-
tiok, erdaraz ere badakigu; alde-
rantziz, ordea, ez da gauza bera
gertatzen: erdaraz dakiten askok
(lautatik hiruk) ez dakite euskaraz.
Famili-bilkuretan, horrela, lagun
arte, edonolako batzarretan eta
jaietan, «elkar hobeki ulertu be-
harrez», «por razones de operati-
vidad», «pour être efficaces», eta
abar, erdaraz hitzegiten dugu.

Zenbat aldiz, ordea?

Karkulu hori zaila ez izanik ere
(J.R. Etxebarriak, Sagarnak eta bes-
tek berehala egiztatuko dituzte ene
zifrak) ez da gaur arte, nik daki-
dala, behin ere egin.

—oOo—

Eman dezagun LAU lagun
talde bat: A, B, C eta D. Zenbat
multzo gerta daiteke hor, hitzegi-
terakoan?

BI lagunek osaturik, SEI hizketa-
multzo gerta daitezke; eta hauek
dira: AB, AC, AD, BC, BD eta CD.

HIRU lagunek osaturik, LAU tal-
de: ABC, ABD, ACD, BCD.

Eta LAU lagunek osaturik, talde
bakar BAT, jakina: denek elkarre-
kin osatzen dutena: ABCD.

Hizketari buruz, hortaz, HAMAI-
KA hizketa-multzo gerta daitezke.

—Ema dezagun orain A erdaldu-
na dela; eta B, C eta D, berriz,
euskaldunak. «Operatividad», «effi-
cacité» eta «errespetu» famatu ho-
riek direla bide, A dagoen multzo-
etan erdaraz egingo da. Erauzirik
geldituko da euskara multzo haue-
tatik: AB, AC, AD, ABC, ABD,
ACD eta ABCD. Zazpi multzotan,
beraz, euskara kitto!

Eman dezagun orain A eta B
erdaldunak direla; eta C eta D,
berriz, euskaldunak. Multzo GUZ-
TIETAN baztertuko da euskara min-
tzabide gisa, bakar BATETAN ezik:
AB. Kasu honetan, beraz, talde ho-
rren % 91 kasutan erdara nagusi-
tuko da; eta ez da euskara en-
tzungo % 9-tan baizik! Erdiak er-
daldun izanda.

Zifra horiek koadro batetan ja-
rriz gero, beraz, hau dugu:

4 LAGUN

Erdaldun	%	Euskaraz ari	Erdaraz ari	Erd. %
0	0,0	11 multzo	0 multzo	0,0
1	25,0	4	7	63,5
2	50,0	1	10	90,9
3	75,0	0	11	100,0

—oOo—

Familia batetan, esate baterako,
aski da aitak euskaraz ez jakitea,
familia horretan, bi haurrek eus-
karaz jakin arren, % 63-tan erda-
raz egin dadin.

Hona hemen karkuluak 6, 8 eta
10 laguni buruz ematen duen on-
dorioa:

6 LAGUN

Erdaldun	%	Euskaraz ari	Erdaraz ari	Erd. %
0	0,0	57 talde	0 talde	0,0
1	16,7	26	31	53,4
2	33,3	11	46	80,6
3	50,0	4	53	93,0
4	66,7	1	56	98,2
5	83,3	0	57	100,0

8 LAGUN

Erdaldun	%	Euskaraz ari	Erdaraz ari	Erd. %
0	0,0	247 talde	0 talde	0,0
1	12,5	120	127	51,4
2	25,0	57	190	77,0
3	37,5	26	221	89,5
4	50,0	11	236	95,5
5	62,5	4	243	98,5
6	75,0	1	246	99,6
7	87,5	0	247	100,0

10 LAGUN

Erdaldun	%	Euskaraz ari	Erdaraz ari	Erd. %
0	0,0	1013 talde	0 talde	0,0
1	10,0	502	511	50,4
2	20,0	247	766	75,5
3	30,0	120	893	88,0
4	40,0	57	956	94,3
5	50,0	26	987	97,1
6	60,0	11	1002	98,9
7	70,0	4	1009	99,4
8	80,0	1	1012	99,9
9	90,0	0	1013	100,0

Hamar lagun talde batetan, er-
daldun batek elkarrizketan erdia
erdalduntzen du; baina bost eus-
kaldunek, % 2,9 baizik ez dute hi-
tzeragiten. «Euskeromano» omen
gara... Baina zifra horiek aski dira
ERDAL ARRAZAKERIAZ hitzegin
ahal izateko. Pariak baino gutxiago
gara euskaldunok geure herrian;

eta erdaldunak Hegoafrikako zuriak
baino aisa nagusiago. Batzu «eus-
kal inperialismoaren» bildur!

—oOo—

Herriko lagun-taldeak eskuarki
tamaina horietakoak izaten direnez

gero, zifra BILDURGARRI horiek
har daitezke oinarritzat; eta gure
herrietan gertatzen denaren irudi-
ztat.

Hitz gutxitan esateko, herri ba-
tetan jendetzaren ERDIA erdaldu-
na baldin bada (gaur leku askotan
duguna), herri horretan erdaraz egi-
ten da % 91-97 kasutan! Herri ho-
rretara datorren kanpotarrak, beraz,
ez du ia inoiz euskaraz inor en-
tzuten; eta bertan galdutza ematen
du hizkuntza.

Horixe da, ordea, gaur Zuberoan
eta Lapurdi osoetan gertatzen de-
na; eta Sanchez Carrionek bere li-
buru ezin-mingarriagoan adierazi di-
gunez, Nafarroako euskaldun barru-
tik gehienetan gertatzen dena:
oraindik ere batzuek (askok behar-
bada) euskaraz jakinik ere, euska-
ra EZ DA ERABILTZEN, eta hilda-
kotzat jo daitezke.

Inpresio hau bestalde, ez da
inolaz ere ustekeria faltsu bat; egia
latzaren irudi xuxena baizik. Ene
koadroek hozki erakusten dutenez,
euskaldunak oraindik ere ERDIA
diren herrietan, erdara entzuten da
% 91-97-tan... GUTXIENEZ! Askot-
an euskaldunek berek, eskuarki
erdaraz egitera beharturik, ez bai-
tute azkenean beren artean ere
euskaraz egiten! Zifra izugarri ho-
riek, beraz, egia baino... larrosago
dira!!

Beste gauza bat agertzen da zi-
fra horietan: erdaldun bakar batek
duen eragin galgarria. Sei lagun
talde batetan, esate baterako, aski
da lagun BAKAR BATEK euskaraz
ez jakitea, talde horretan, besterik
gabe, % 53,4 multzotan erdaraz
egin beharra gerta dadin.

Zifra bildurgarri hauek euskaltza-
leek ondo kontutan hartzea nahi
nuker; eta euskaltzale omen diren
erdaldunei ene irakurleek azaltzea.
Zifra lazkarri hauetaz zeharo de-
nok jabetu artean, euskararen ara-
zoak ez du soluziorik izango. Zi-
frak lagun, euskaraz ikasten ez du-
ten «euskaltzaleak» (???) euskal gi-
roaren MINBIZIA dira, eta «erdero-
mano» huts.

Noiz helduko ote dira Euskal
Herrira, halajainkoa, zifra horiek
kontutan hartu, eta provo gisa
GOGOR jokatzeko gertu egongo di-
ren gazte suharrak? Noiz?

Zeren izurrite horri nagusitzeko
bide bat baizik ez baitago: 1) ardi-
-larruz jantzitako URDEEN aurka,
ikastolei nola edo hala eustea; 2)
errazkeriak baztertuz, euskara lan-
tzea eta ikastea, beti ere euskaraz
lasai hitzegiteko gauza izan arte; 3)
katalanek, flamenkoek eta txeko-
koek egin duten bezala, euskaldun-
ok ere, zer gerta ere, gure hiz-
kuntza ez dakitenean aurrean, au-
sarki EUSKARA HUTSEZ hastea; 4)
euskaraz ikasteko urratsak EMA-
TEN ez dituzten ERDEROMANO eta
sasi-euskaltzaleak zapuztu, mespre-
txatu eta zakurraren ip-ra botatzea.

Bestela, jaunak, gureak egin du.
Eta utz ditagun ametsak, eta...
xeru-xeru, guretzako gertu da-
goen... PUTZURA!

LARRESORO

ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-
ko Kaputxinoak argitaratua
(Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-
Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan 300 pezeta
Korreo batasuneko errietan
350 pezeta
Atzerrietako beste errietan
370 pezeta
Aldez Aurrez gal-
detu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963

EGUN EGUNEKOA


POSTARIAK DAKARRENA

Mutil hortaz aspaldidanik
entzuna nuen: dantza-talde
baten buruzagi zen, herriko
jaietan beti bizkor gauzak
antolatzen, hitzaldiak eta
kantaldiak ehunka prestatu
ditu, bai, euskaltzale pare-
gabea, zirudienez. Baina
gaur jaso dugun ezkontza-
mezua erdara hutsez zen
eta horrez gain dotore nah-
rik barrugarri izaten den
itxurakoa.

Ai ezkongai hori! Amodio-
aren suak euskaltzaletasuna-
ren garra itzali ote dizu?

DANIEL IBARGOTI

Gure eta Baztan bailadako pelotari guztien "Patroiak" ondotoxo merezi duelakoan gaude.




EKAIN Oraingo Gipuzkoan barrena behintzat, erabat ezaguna dugu Debako Ekain leze-zuloa laster asko zabalduko den berria. Beraz, orain arte jakintsu eta azterlariek bakarrik ezagutzen zituzten bertako haiz-marrazkiak, herri soilak ere ikus ahal izango ditu denbora guti barru.

Azpeitiko "Antxieta" taldeko Rafael Rezabal eta Andoni Albizuri gazteek 1969 urtean arkitu zituzten egun hain ezagunak ditugun Ekaingo haiz-marrazkiak. Berehalaxe Jose Migel Barandiarani jakinarazi zioten, eta Jesus Altunaren laguntzarekin, bi egunen buruan azpeitiar gazteen iritzia egiaztatu zen. Geroztik, beharrezko azterketak egin eta gero, itxi egin zen urte berean Ekain leze-zuloa, badaezpada ere inork ezer ukitu edo izorra ez zezan. Hona hemen, bi jaun hollen iritziz zertan dugun Ekaingo leze-zuloa eta bertan aurkitu ziren marrazkiak:

"Ekaingo arkaizetan aurkitu diran marrazkien bilduma, Franko-Kantauri deituraz ezagutzen dan artegintzaren barrutian, interesgarrietakoa da. Kalitate oneko grabatuak eta marrazkiak dira ia gehienak. Erabili zituzten lehen-gai edo materialak gaiñera, beste artelan batzuekin alderatzeko aukera damaigute. Gure Erriko lehen garaia ezagutzeko ere, dato aberatsak, eskeintzen dituzte. Arrazoi guzi hauengatik, benetan jakingarri eta harrigarria gertatzen da leze-zulo hau ikustea. **EKAIN, PREHISTORIAKO ARTE-SORTARIK ONENTXOENETAKOA DA ZALANTZARIK GABE**".

Esan dugunez, ba, Ekain leze-zuloa laster zabaltzeko omen da, eta denok ikus ahal izanen ditugu, beraz, duela 11.000 edo 13.000 urte inguru gure arbasoek egin zituzten marrazki bitxiak, hau da, Goi-paleolito Haroko Madelein V-VI kulturakoak, Benantxio Otaegik ondotoxo esana digunez.

Diogun, azkenik, hasieran pasadizuan esan arren, Ekain Debako lurretan dagoela, nahiz eta Zestona herritik askoz ere hurrago egon, kilometro eskas batetara hain zuzen. Aipatu ere, J.M. Barandiaranek Zestonan dagoela aipatzen.



Ekaingo zaldi irudi bat, gorri beltzez margotua. 70 zm. luze haina da.

digu bere Lehen Euskal Gizona. (Lur) liburuan. Halakoak gertatzen zaizkie sarri jakintsuei, hots, gauza zailenak zientzia zentzu hestu batez moldatu, eta huskeriak, aldiz, iriztira.

Ekain leze-zuloa ba, "debatarrana" da. Ermittia eta Ur-tiaga bezalaxe. Zein euskal herrik eskain dezake gehiago?

CINSA Bilbaoko "Cinsa" etxeak hamabi liburu omen ditu laster argitara eman asmoz. Liburu sorta hau 6-9 urte arteko neska mutikorentzat bereziki moldatua da. Lehen aleak hasi berri dugun apiril honetan agertuko omen dira.

Horrez gainera, "Cinsa" deritzan editorial hau "Guia del País Vasco" delakoaren bigarren argitaraldia gertutzen ari omen da. Bertako zuzendari den Xabier Gereñok esaten digunez, argitaraldi hau 3.000 aletakoa izanen da, eta 180 orrialdetan barrena gaztelaniaz soilik burutua.

Lehen argitaraldia ezagutzen dugu, eta, egia esan, nahiko motela iruditzen zaigu. Izan ere, gure ustez, hasiera hasieratik planteamendu oker batez moldaturik deritzagu liburu horri. Turismorekiko albiste eta gidaritzak ere aldatuz eta eraberrituz doazkigu, eta "Cinsa"ren liburuari antzinako zentzuz burutua deritzagu, "camping" giroko turismo bati baino, "balneario"ko bati atxikirik edo.

Dena den, besterik ezean, pozgarri litzazguke bigarren honetan hango hutsune nabarmenak gaindituko balira, eta praktikotasun handi gabeko xehetasunak baztertu. Euskaldunok edo, hobeto esan, Euskal Herriak behar beharrezko du —turismoa beharrezko (?) zaigun neurrian, behintzat— bertako gidari liburu bat. Eta honetaz ez dugu ezer asmatu beharrik, hor zehar, hainbat sistimaz baliatuz, sakabanaturik daudenak kopiatu baizik, eta gure Herriari bere osotasunean dagokion neurrian egokitu.

ARTISTA HUIEK Luis de Castresana idazle "vascoak" pinturari ekin berri dio, eta arestian bere lehen erakusketa prestatu du Bilbaoko Galeria Windsor delakoan.

Bagenekien lehendanik ere gure idazle ospetsu bilbotarra habila zela, baina, horregatik... horrenbeste zenik ez genekien. Orain ez zaio besterik falta kaikua edo txapela jantzi eta "Desde Santurtze a Bilbao..." edo kantatan hasi, euskal kutsuak dotore egiten bait du. Gainera, batek daki, onenean, "Urrezko Angula" ezetik, "Urrezko Oilarra" ere emanen liokete. Aurrez gure zorionak.

● Bartzelonako "El Pedregal" deritzan museo batetan Oteiza irudigilearen 7.000 kilotako eskultura lan bat agertarazi berria izan da. Eskultura hau zazpi irudik osatzen du, Euskal Herriko zazpi probintzien adiarazgarri.

Harako museoko ugazaba eta eratzaille den "Estrada Galadich" elkarte katalunyarrek Nafarroako Diputazioari eskainiko omen dio aipatu dugun Oteizaren eskulturazarra, Iruñean jarri eta bertan gera dadin.

Poztutzen gara poztu, era honetako arte obra baliotsuak Euskal Herrian geratzen zaizkigulako, eta are gehiago, honako honetan, Euskal Herriaren beraren ezagugarri denez gero.

● Bilbaoko "La Gran Enciclopedia Vasca" delakoa hasia da Euskal Pintatzaille eta Irudigile Sorta bat argitara ematen. Sorta hau alexkatan aterako da —asteko ale bat—, eta guztira 150 artistaren lanek osatuko dute, berrehunen bat alexkatan barrena.

Esan digutenez, ale bakoitzak hirurehun peseta balioko du, eta obra guztiak beraz, ia hamabi mila hogereko. Baten batek esana du arte herri guztien ondasuna dela. Baina, itxura denez, batzuren beste baina gehiago.

ITURENGO ERRETOREA Latxaga idazle jori eta kazetari onari irakurria diogunez, Nafarroako Ituren herririk erretore berria du. Noski, Ituren erretore berria duela eta, ez gara orain besterik gabe kanpaiak jotzen hasiko; baina, jakina, Latxagarren albiste ez da hemen amaitzen, erretore hori nor den esaten bait digu, Fermin Ixurko, alegia.

Fermin Ixurko Nafarroako Uizin jaioa dugu, eta errotik da euskalduna eta euskaltzalea. Horrez gainera, eta erretoretzarako beharrezko ez bada ere, esan dezagun esan gure Fermin idazle dela, euskal idazle halazankoa!

Lehendanik ere zertxobait idatzia izan arren, 1972 urtean barrena ekin dio erabat idazteari, eta bere zirriborroak irakur ahal izan ditugu hileroko "Príncipe de Viana" aldizkarian. Fermin idazle gazte trebea dugu, hizkuntza erruz menderatzen duena, gai eta era herrikoiek darabilzkielarik nondik nora ari den ondotoxo dakiena. Horra hor Nafarroa zaharrak euskaldungoari eskaintzen dion beste kimu berri eta jori bat.

Duela zenbait aste Fermin Ixurko aipatu genuen sail honetan, etxen gurasoak erdaraz mintza zitezela eskatu zuten Erronkariko maisu bati zuzendu zion gutun bat atxakia harturik. Ez genekien sasoi hartan, ordea, nor arraio zen Ixurko idazle gaztea. Hona hemen, ustekabean, erantzuna.

Iturenen badu, bai, "Zanpantzar" sonatua. Baina hara non duen orain erretore idazlea. Bejon dagiela!

IRAKURLEA MINTZO Duela zenbait aste sail beronetan aipatu genuen FONTIES aldizkarian Leizarragaren aditzari buruz Gabriel Arestik egin zuen azterketa. Orain berriz, euskal aditzazko asko eta asko dakien Josu Oregi bergarar adiskideak harako Arestiren azterketa hura beraztertu du, oharkabean edo irar-lanean azalduko hutsak aipatuz. Azterketa honetan lau orrialdetako txosten bat moldatu du Oregik, eta Euskaltzaindiari bidaliz gainera, guri ere ale bat bidali digu hartaz jakin dezagun.

Gure eskerrik sutsuenak Josuri, eta berresan ditzagun hemen bere hitzak: "Ba da oraindik euskal-aditzean azterkizunik franko".


● Mahai gainean dugu Luis Pedro Peña Santiago etnologoaren gutuna ere. Guztiz arduraturik ikusten dugu gure adiskide hau Sasiolan gertatzen ari denaz. Irakurleak badaki, noski, Mendara eta Deba artean —Astigarribiaren aurrez aurre— dagoen abadetegi zaharra gainbehera datorrela aspaldiko urteotan.

Sapaia erabat zulaturik, hormak lehertuz noiz behera etorri; hilobiak hankaz gora, nola hala irekiak, kaska-hezurak ere bistan direlarik. Zutik irauten duen gauza bakarra erretabloa omen da, hamalau metro handi hainako intxaurrezko erretabloa. Dagoeneko zenbait irudi falta zaio, batek nola ez dakielarik gero "antiguedade" dendetan agertu ohi den hoitako zenbait.

Gipuzkoako Artean barrena, Sasiolako eliza zaharra elizarik baliotsuenetarikoa bat dugu, erretabloari bagozkiko batez ere. Ez ote du inork ezertxo ere eginen? Den dena Deba hibaira erortzen denean hasiko ahal gara bere hilaok goraltzen?

Orain dela lauhun eta berrogeita hamar urte inguru, Elkanoren testamentuan honako hitzak aipatzen ziren: "...urrezko hamar dukado bidaltzen ditut Sasiolako Abadetegira". Ez ote du inork getariarraren limosnatxoa gethituko?

AMATINO



ANTZERKI LEHIAKETA Tolosako "Centro de Iniciativas y Turismo" delakoak eratu antzerki lehiaketa aurrera doakigu. Izan ere, lerro hauk argitara orduko hasia izanen da, eta dagoeneko, bi saio —lehen biak— emanak.

Guztira hamabi taldek hartuko omen du parte, seik gaztelaniaz eta bostek, berriaz, euskaraz. Hona hemen euskal taldeen zerrenda, bakoitzak bere obra zer egunetan aurkeztuko duen adiaraziz:

Apirilaren 11an, Errenteriako "Ereintza" Taldeak Abe-lino Barriolaren Dolgorra antzerki lana aurkeztuko du.

Apirilaren 23an, Motrikoko "Goizeko Izarra" Elkarteak, Inazio Begiristainen Apaiz, langille eta gizon.

Apirilaren 25ean, Oiarzungo "Intxixu" Taldeak, Eujenio Arozenaren Aralar izenekoa.

Maiatzaren 4ean, Arratiako "Arantzak" Taldeak, Pedro Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna deritzan antzerki zaharra (XVIII mendekoa) berriztatuko du.

Maiatzaren 9an, azkenik, Urnietako "Egi-Billa" izenekoak, Inazio Begiristainen Kiretsa dario izeneko antzerki lana aurkeztuko du.

Tolosarrek ba, badute, bai, euskal antzerkirik erruz ikusteko aukera bolada honetan. Tamalez, aipatu egun guztiak astegun buru zuriak dira, eta inguruko herrietan edo ez bada, gainontzeko hainbat eta hainbatentzat, behintzat, ez dira egun hoik batera egun erosoak.

ANAI SEGUNDO Apirilaren 14ean, Errioxako Lardero (Logroño) deritzan herrixkan, omenaldi bat eskainiko zaio Anai Segundori. Noski, irakurle gutik baino ez daki nor den Anai Segundo, hala ere, ez dakienak galde dezala Baztan bailadan zehar, erantzunik franko jaso ahal izanen bait du.

Baina, baztandarren erantzunaren zain gelditu gabe, diogun gure aldetik Segundo Gangoitia Arrieta Berrizen jaio zela, 1894 urtean, ekainaren Igoan. Haur bat baino ez zela Izurtzara eraman zuten, eta han bizi izan zen "Beko-Torre" deritzan antzina batetako baserri dotorean. Jainkoaren deia gazterik sentitu zuen, nonbait, eta Durangoko Maristen ikastetxean ikasle zelarik ordena erlijioso berean sartu zen.

Hamazortzi urte baino ez zituen bere lehen ikasketak Antzuolan amaitu zituenean, eta Azpeitia, Oñate, Zalla, berriz Azpeitia eta Valmaseda herrietan maisu bezala ihardun zuen, 1933 urtean Oronozera bidali zuten arte. Aipatu herrietan etengabeko lana izan zen Anai Segundoren, eta diogun esate baterako, berak sortu zuela Azpeitian lehen-dabiziko zinema haurrentzat, bai eta —oker ez bagaude— oraindik bizirik irauten duen "Lagun Onak" elkarte ere. Geroztik, bere urterik gehienak Baztaneko Oronoz ikastetxean bota zituen, eta hantxe ezagutu genuen guk, duela hamarren bat urte.

Gizonetako trinkoa, euskaldun petoa, agintzaille eta zital samarra, ikasle guztiok arras maite genuen, bai eta "Patroiak" izengoitit bezala erantsi ere. Berak ere maite zuen, antza, gaitzizen hori, eta sarri ziotsan bere buruari "Patroi Zaharra".

Pelotari trebe eta pelotazale amorratua, pelota jokoa nahi eta nahiez jarri zuen eskola ikaskai bezala, punta, pala eta erremonte, ikasle bakoitzak nor bere aukeran. Eskuz ez, zeren, inguru hartan behintzat, inozoenak ere polito zekien eskuz pelotan. Bere babespe eta eragintzapean sortu ziren Baztan bailadako jokaldiak, non Etxalarreko Bergara bezain pelotari on eta ezagunak sortu eta aritu ziren, bai eta naizen hau bezain traketsak ere. "Medalla al Mérito Deportivo" delakoa ere eman zioten, eta Baztango herrietan zehar guztiz ezaguna zen, pelotari eta pelotazaleen artean batez ere. Geroztik, 1963 urtean, irakaskintzan berrogeita hamar urte betetzean, "Encomienda de Alfonso el Sabio" ere eman zioten, ez, noski, horren zain zegoelako.

Sasoi onenean zelarik, gaixaldi gaizto batek geldiarazi zion gorputz erdi, eta, nahiz eta pitinka pitinka berriz ere bere gisara bihurtuz joan, ez zuen harez gero makilarik utzi ahal izan. Horrela ezagutu genuen guk, errenka, makila eta txapela befi soinean zeramatzkiela. Hala ere, pelotan hainbeste egina zen gorputz trinko hark sasoi batetako trebetasuna galdu zuen arren, izpirituz erne eta kementsu jarraitu zuen, ikasle guztien ereduagarri.

Baina, esasuna gero eta makalago, nonbait, eta gure bizkaitarrak hain maite zuen Baztan ingurua utzi behar izan zuen, Errioxa alde onuragarriago zelakoan. Orain berriz, haren ikasle, adiskide eta pelotazale guztiek omenaldi bat eskaini nahi izan diete, hala beharrez dagoen Errioxako habian bertan.

Europako langileria

EGOERA BERRIAK

Europako Azoka Batuan badira enpresak Estatu bi edo gehiagotan beren filialak edo lantegiak dituztenak. Enpresa hauen egituraz berri zehatzak eta ugariak horri hauetan emanak ditu J. Elustondok. Mundu guziko ekonomi alorrean gero eta nabarmenago agertzen ari da haien indarra eta zer esanik ez dago kapitalaren jokabide honek langileriarentzat dakazkien ondorenak haintzakotzat hartu beharko direla.

Kapitalaren jokabide hau, atzo goizekoa ez bada ere, gaurkotatuz berrituko dago. Horrek behartu du Estatu ezberdinenpean ari diren sindikatoen arteko harremanen ugaltzea. Estatu-mugarik gabeko enpresa hoienguzendari taldeek herri ezberdinetako sindikato ordezkariek osatutako batzordeekin lehen harremanak izan dituzte. Harreman hauek direla eta, Europako sindikatoak bata bestearen berri jasotzeko, jokabide elkartuak eratzeko eta kapitalaren desafioari erantzuteko bideak hartzen hasi dira. Hala ere gauza bat da asmoa eta beste bat bidea.

1972-garren urtean zehar zenbait enpresa mundialetako zuzendaritzak pareko sindikato buruzagiekin hitz egin izan du. «Continental Can Co» izeneko enpresa, metalezko enbalaie egileen artean buru, Europan duen zuzendaritzaren bidez Europako metal lantegietako sindikatoarekin (F.E.M.) harremanetan ibilia da. Europa Batuean Batzordeak Holandako lantegi baten kontrola hartzeko enpresari jarri zizkion eragozpideak eta langileentzat etor zitezkeen lanezaren ondorioak jardun zuten langileen ordezkariek. Elkarrizketa horretan lanaren segurantzari ez zen lortu ahal izan.

F.E.M. berak harreman ugari izan du V.F.W.Fokker enpresarekin. Honek 8 lantegi ditu Holandan eta 9 Alemanian. Enpresaren inborsio egintza, lantokien egoera, nazio bietako enpresaren langileen behar sozialen egokitzaren premiaz eta abar hitz egin zen.

Sindikato bera Philips lantegietako buruzagiekin sarri bildu izan da: lanaren etorkizuna aztertzeko, aldi mugatu batzuetan gerta litekeen lanezaren ondorenak ikusteko, lantegi batetik bestera produzio aldatzeak dakarrena jakiteko, lantegien integrazioak eta abar.

Adibide bezala jarri diren harreman hoienguzendari asko ugalduta dira Europa eta Amerika mailan. Harreman hoienguzendari esan den hoienguzendari erakoa izan da.

Hala ere lan segurantzari ez da lortu ahal izan, eta Philips lantegietan %ko 3-ra irabaziak irixi ez omen direlako, 26.000 langile lanik gabe gelditu dira.

Igaz, C.F.D.T.-ek dei egin zuten C.I.S.L. eta C.M.T. Sindikato Elkartei Europa mailan sindikato batua eta berria sor zedin. Erantzuna emateko dago.

Kapitalaren jokabide berri honen aurrean langile interesen zaindariak bide berriak urratzen hasi beharrean daude. Alferrikoa litzake betiko bideak jorratzen jarraitzea.

Batetik, sindikatoek eta langile alderdiek, inoiz baino gehiago, batean eta bestean gertatzen direnen berri elkarri ematen eta jasotzen saiatu beharko dute. Nazio eta Estatu ezberdinetan jokatzen duten enpresen ongi ezagutzen dute lurralde bakoitzean dagoen langileria-kemena, sindikatoen ahulezia eta beren erabakiak betearazteko eragozpide gutxienez aurkituko duten ingurua. Eraberean, toki bakoitzean eta enpresa hoienguzendari batetan ematen den borrokaren berri beste tokitan eta beste lantegitan zabaltzen hasi beharko dute langile erakundeek.

Bestetik, langile erakunde bakoitzak, beren estrategia eta taktikak eratzeko garaian, kapitalaren jokabide berriak langileei agertu beharko dizkie hartu behar duten bidea behar bezala azter dezaten.

Hori horrela egin denean, gutxiegi zoritxarrez, ondoren onak ekarri izan ditu beren borroka. Enpresa bateko lantegi batetan emandako borroka enpresa bereko beste lantegiko langileen laguntzarekin hazi egin ahal izan da borroka.

Hala ere hasieran ikusi ditugun ekintzetan bezala arrisku aunitz dago. Philips mailan, zuzendaritza eta langileen ordezkaritzaren artean egindako elkarrizketetan langileen interesak zeharo nahastu ziren zuzendaritzarekin. Korporatismoaren arriskuan ere eror daiteke. Izan ere metal lantegietako adarrean dabilzenak ahantz dezakete laborantzian edo industria saileko beste adar batean dabilzenak. Enpresa bateko beste batekoak ahaztea ere gerta daiteke.

Enpresa ikaragarri hauek gai dira beren planifikazioa estatu mailan onarrazteko. Eraberean, langileriak beren erakunde bidez eta Europa mailan berea egiteko garaia dute. Nagusiek ez bait dute beren asmoak gizonaren mailan beteazteko posibilitaterik. Langile alderdiak oster, gizonaren neurria zaindu beharrean daude kapitalatik urrutitazeko eta bera xahutzeko. Beste tokietako langileak erabiltzearen edo dabilzenak lurraldez aldatzeko ez dago lantegi bat isterik.

Inborsioak hemen ala han egingo diren erabakitzeak garaian esku izateko borroka luzea egin beharko da lehenik. Langile alderdiak buru egin beharko die Estatu zaharretan gordetzen den eztabaidari. Ez da aski Estadua edo ugazaba ukatzea. Hauen jarraipena ukaziotik datorren oinarri bizietan jarri beharko da gizona eta herrien serbitzurako Europako langileriak inoiz baino flexibilitate haundiagoa beharko du bere helburuak lortu nahi baditu.

D. IZA

Euskalzaletasuna eta finantzak

Ekonomiaren leihotik gure gizartera eta gure herrira so egiten badut, ez dut ekonomiaren estruktura lehorra bakarrik ikusten. Mota izango litzake nere begirada, baldin ekonomiarekin batera eta ekonomiarekin gurutzaturik, gizarte-estruktura, politika-estruktura eta, orobat, ideologia atzemango ez banitu.

Egia esan, ez nuke ekonomiaz hainbestetan idatziko, une berean gizarteaz eta politikaz ari naizela pentsatuko ez banu.

Aldi honetan, irakitan dagoela dirudi gure gizarteko finantza-aldarra. Espainiako ekonomia nola doan ikusirik, eta batipat Balore Merkaturan dabilen zoramena go-goan harturik, ez da batere harritzeko, irakinaldi eta zoramena hori gure gizartean ere hedaturik eta nagusiturik autematea.

Jakina, "giro" hau ez dago gizarte guzira hedatua. Baloreen Merkaturako grina, antisia, esperantza eta kezka, dirudunen artean soilik senti daitezke, noski. Hala ere, azterketa soziologiko on bat egin ez gero, harriturik geldituko ginateke, agian, uste dugun baino jende gehiago Bolsaz arduratzen dela ikusteaz.


Gure eskualdean, Errioxa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan diru-kapital eskergak non-bait gordeak, ipiniak edo kokatuak zaudela edo daudela, ezin argiago agertu da. "Gipuzkoako Banketxe Industrialak" mila milioi eskatu zituen jendartera eta, munda guziaz dakienez, bost mila milioi izan dira eskainiak, Banketxe berri honetara sartu nahirik.

Finantzarik ohartu dira, bai, diru-merkatu honetaz. Baina zeintzuk? Euskaldunok? Bai, zera. Katalanak! "Balore konpainiak" (Sociedades de cartera) perretxikuak bezala sortzen ari zaizkigu, begien aurrean. Bi baino ez ditut aipatuko: bat Carfide deritzana; beste, Bankunio-ek egun hauetan txete sortuko duena. Carfide ez da gure eskualdeko kapitalez bakarrik osatu, baina hemen hain diru anitz eskuratuko dute, non beste bat berria, honako bertarako, gure eskualderako, sortzera omen doan abiada bizian.

Honekin zera agertu nahi dut argiro: euskaltzale askoren dirua dabil inborsio horietan; ez dudarik izan. Euskaltzaleok kultura ekintzarako biltzen eta elkartzten gara. Baina, nik ez dut ezagutzen, euskaltzale talderik, euskaltzale bezala, euskal estrategia baten baitan, finantza ekintzarako bildu eta elkartu denik.

Gaurregungo kapitalismoa finantza taldeek gobernatzen duten sistema da. Esan nahi dut, alegia, finantza botereak bere agintea eta eragina ezarririk daduzkala gizarteko egitura orotan, nahiz politikan nahiz kulturatan.

Bestalde, finantza-aldarrean indutrian baino errazago da, mota askotariko jende osaturiko taldeak sortzea. Lantegi industrialak teknika zorrotza eskatzen du eta egun osoak makina artean igarotzea, lantegia aurrera aterako bada. Medikuek, arkitektoak, abogaduak eta merkatariek, ez da batere gauza erraza lantegi industrial berri baten sortzaile egitea. Aipatu jende mota hori, aldiz, bil



Paris-ko Boltsa martxoaren haseran

daiteke, elkar daiteke eta "finantzarako" taldea sor dezake. Profeso horiek guziet joera eta isuri garbia bait dute, dauzkaten ondasunak, ahalik etekinbide onenak diran inborsioetan sartzeko.

Nork ukatuko dit, mediku, arkitekto, abogadu eta merkatarik euskaltzale anitz dagoela gure artean? Horien eta beste zenbait profesio liberalen artean diru kapital ugaria dagoela, begien bistan dagoen gauza da. Euskaltzale diranez, zenbait ekintza kulturaletarako biltzen dira eta laguntza ere ematen dute. Baina, nork ikusiko du holako talderik finantzarako, euskaltzale gisa eta euskal xedez, elkarturik? Nola egin horrelakorik, hori burgeskeria itsusia litzakeelarik? Bizkitartean, euskaltzale dirudun horien ondasun biltzaile eta administratzaile, zein eta katalanak etorri zaizkigu.

Burugabekeria eta ergelkeria dela jokabide hori, hitz bitan ager daiteke, gero. Gaur euskaltzale izatea, inolaz ere ez daiteke izan "kultura" deitzen diogun alorrean soilik eta bakarrik ahalegintzea. Kulturagintza serioak, gaurko munduan eta areago gurean, ekonomigintza, hots, ekonomia indarrak eskuetan edukitzea eskatzen du ezinbestez. Eta kultura eta ekonomiarekin batera eta gainetik herrigintza. Boterea eta agintea bait dira nahi badugu, ez badugu, gizartearen erdi-erdiko ardatzak.

Badut adiskide dirudun euskaltzale suhar bat. Ez dira urte guti esaten niola: "noiz sartu behar duk finantza-aldarrean, noiz egingo haiz bankulari?" Muzin egiten zidan, mundu hori —bera industriari denez gero— arbuigarri zitzaiola adierazi nahiz bezala. "He-

rrizale denarentzat, arazoa ez duk horrela behatu behar. Mundu hori arbuigarri den ala ez, norberaren aurpegi garbia ilunduak duen ala ez, ez duk hori arazoa. Herrigintzak eta herrizaletasunak zerbiztu gogorak eskatzen dizkik eta, hiri, agian, hori eskatuko dik gaurregun bizi eta jasaiten dugun sistema kapitalista honek".

Honela erasotzen nion, baina... Horrelako zerbait gertatzen zaiola, uste dut gure herriko dirudun euskaltzale askori. Dirudun klasekoa izan, burgesiako izan eta burges bizi, baina burgesiaren, gaurko eta hemengo, egitekoari etsi nahi ez. Gure gizartetxoan guziet elkar ezagutzen bait dugu, eta finantzarearen sonbrailupean euskaltzale garbiaren distira itzali edo egingo bait litzake.

Hona, bada, nola geure finantzak besteren eskuetan uzten ditugun. Ez, noski, etekinik emango ez duen eskuetan. Aitzitik, irabazi joriena emango duen inborsioetan. Jakina, horrela gauza biok lortzen ditu: dirua pillatu eta euskaltzale izena garbi gorde. Horregatik dabil —ez horregatik bakarrik, noski— baina, bai horregatik ere, lehengoan nion bezala "hain arlo-te gure herrigintza".

Halere, arestian aurkitu naiz nere lagun zaharrek eta bankulari egingo ote den esan dit. Ez uste izan gero, bere euskaltzaletasuna txepeldu denik. Begira zer esan zidan, jardunaldi luzearen ondoan: "Euskaltzale muinetaraino izategatik, burges eta kapitalista serioa bezala oso-osorik jokatze prest natxeok".

G. ANSOLA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERBENTERI



YOGUR

GURELESA

GOGOZKOENA



Ideologikeriak eta norneriak

Gurasoen eta umeen belaunaldi biak oso diferenteak direla, eta elkarri begiz-begi jarririk daudela, esaten nuen. Noizpaiteko diferentziak, beren arteko kontradizio bihurtu direla. Eta kontradizio hauen erdian, hasarreturik, elkarren kontra burrukan hasiak ditugula, jadanik.

Burruka hau, hazaldien arteko burruka normal bat baino gehiago da. Bai bere funtsagatik eta bai bere moduagatik. Burruka honetan politikak dadukan inportantzia ikusteko (agiriko nahiz izkutuko politikak), ez dago teoria konplikatuak ikasten ibili beharrik.

Baina ez politika programatu batek —Euskal Herrian oraingoz inork ez daki, ez zahir eta ez gaztek, gerorako politika garbi samar nola programatu litekeen— ezpada bai, sentiera eta jite sozial eta politiko jeneralek. Belaunaldi biotan, batean eguzki denean, bestean beti euri da, eta aldrebes. Honela gabilta 1960 aldera hasi eta gaur arte.

Azkenean, 60garren urteetako haiek mentalidade diferenteen diferentziak zirela, esango nuke. Eta gaurkoak ere, gehien-gehienbat, mentalidade diferenteen kontradizioak dira. «H» kontuak eta beste, ez dira diferentzia sakonago horren anekdotak besterik.

DEOLOGIKERIA

Problema latzak daude. Eta, haren, problemak berak ez baina, haien ingurune eta bazter guziaz rakatzeko, jorratzeko eta harrozeko, diskutitzeko, xehakatzeko eta, azkenean, problema berei bakoitzari inportantzia gehiago zokoei eta azterre emateko, joera izugarria dago.

Hormak hautsi eta etxea erortzen dago, eta gu, gure diskusio huziek, teilatua konpontzera jotzen gara.

Izan ere, gehienetan, problemak bertan gaitasunik eta trebetasunik ez dugu, diletante hutsak gara, ez-akinak, eta ez dadukagu, problema berari heldu ordez, haren in-suru-minguruekin enplegatu beste berrremediorik. Situazio honetan, dauka-eguzkiaren eta konpetentzia-ak, erraz-erraz, gauza guzietan uruz irakaspen ziurten bat irastan duen zerarekin disimulatu den «erremediatzen» da: ideologia-ekin. Zenbait eta gai batetan aditu-ago eta jakitunago izan norbait, bainat gutiago baliatzen da ideologia. Hainbat gehiago bere zientzia-az. Guziz konkret mintzatu ohi-ta, eta ez du lekurik ideologien-zat. Baina berdin aldrebes: gure-garen ezagumen eta entendimendu-zutiago, eta are jeneralkiago mintzatu behar, hau da, are ideologia gehiago erabiltzen da. Hau da, are «jakitate unibertsal» (batere ez konkretu) gehiago. Eta are esaldi-eta ateraldi borobil, salomoniko, gehiago.

La denok diletante hutsak gaben herri batetan, ez da harrizte-koa, «zientzia unibertsalak» (ideologia) hainbeste indar edukitzea. Zer besterik itxaro genezake, lideraturako problemak konpontzen, zientzia literarioak azaltzeki ere kusi gabekoak badabilta. Pedagogiako problemetarako egiazko hedagorik ez badugu. Politika-azte adoretzuek badaramate. Eruditos a la violeta» batzuk besterik ez bagara, filosofian sartu garenok, etab. Gure kultur soro-tan «ume-gorriak» besterik ez bagara. Gaizki dagoena, ez da, horiek hori dena egitea. Ahal dutena egiten dute. Gaizki dagoena, horien ondoan eta aurrean zientzia hornitutakorik ez egotea da. Gida eta orientatzaileekin ez egotea. Eta besteok, gure lanetarako prestamenik gabekook, lan probisionalean bakarrik ari garela, errazegi ahaztea.

Lehenago esandako belaunaldien arteko elkarriketa eta komunikazio faltaz gainera, hori dena. Hortan gara: «gazteak ez jakinez, eta zaharrak ezinez, doaz egitekoak deseginez».

Badago beste zerbait oraindik, problemetan sakontzen (egin genezakeen apurra ere) uzten ez duena: problema denak sujetibizatzea.

PROBLEMAK SUJETIBIZATZEKO JOERA

Gazteek joera gehiago dute ideologikeriara, zaharrek baino. Problema itxuragabeki sujetibizatze-ko joera, aldiz, zaharregan ge-

hiago sumatzen dela, uste dut, gazteengan baino.

AGUE edo GOIZ ARGI irakurri, esaterako, hartzen da inpresioa, gure katramila guziaz arrazoi pertsonalen kontu direla, marrokeria, ziraunkeria, satorkeria eta beste hamaika keria direla gaitz guzien iturburuak. Maila hortan mugitzen dira behintzat, jeneralean, haien azterketak. Baina aski da AGUE eta GOIZ ARGI horietatik irakurtzea, eta ANAITASUNA, ZERUKO ARGIA edo HERRIA-rekin konparatzea, edo euskal gazteria zerbait ezagutzea, hain mentalidade diferenteen artean konfliktuak nahitaezkoak direla, pentsatzeko.

Haatik ere, problemak sujetibizatzea ez da zaharren edo eskuindarren pribilegio. Itxuraz, itxura objektiboagoa agiri dute, baina «ezkertiar» batzuen esplikazioek ere askotan problemak pertsonalizatzen eta sujetibizatzen jotzen dute funtsean. Modan dagoen zenbait ideologiak berak ere horixe errazten bait du. Alegia, hitzetik hortzera esango dizute, problemak objektiboki aztertut behar direla, ez dela sujetibizatu behar, etabar. Baina gero esplikazio guziaz «burgeskerian» akabatzen dira. Ikus ezazu HERRI GAZTEDE-ko zenbait azterketa. Burgeskeria, berriz, modu askotara aipa daiteke. Baina ia beti erabiltzen dizute esanahi sujetibizatzearekin ez ezik, esanahi guziz pertsonalarekin eta sikologizatuarekin ere. Dударik gabe kontzientziari, klasetasunari buruz-buru, beregintasunak ezagutzen ez zaiolako. Burgesok beti erreazionarioak dira, beti autoritarioak, eta beti mamutzar gaiztoak. Egia da, hitz horrek Euskal Herrian hartu duen usadioarekin, ez dela posible burges bat pertsona dezentea izatea. Izan ere, sikologismorik sinpleena izkatzen duen sasi-konzeptu hutsetan bukatu du hitz horrek, historiarekin harremanik gabe. Seinalerik nabarmenena, hitz hori irain edo insulto bezala erabiltzea dugu: «hi burges bat haiz», «halakoa burges tzar hutsa duk». Edo-ta, historiak burgesiarik ezagutzen ez zuten garaietan ere, burgesak barra-barra aurkitzen dizkizute: bistan dago esanahiaren aldakuntza.

Problemek ume bereko ideologiazapena eta sujetibizatzea, ume berrean ideologismo eta sujetibismo nahiko gordinak erakutsiz, ez da «ezkertiarrena» bakarrik. «Ezker-tiar» horiek teoriaren mailan inork baino nabarmenago egingo dizute nahasketa hori. Baina egunoroko praktikan, kasurik nabarmenena, ez-pairik gabe, «txartel» banakuntza dugu. E. Osak zuzen salatu du, «batzuek oso gogoko lana dutela, jendea familia politikoetan klasifikatzea». Honelako sorpresak egunoro hartzen ditugu: ZERUKO ARGIA «aldizkari kristau-demokratikoa» dela (Haranburu-Altuna), oraintxe enteratu naiz. ETOR «jesuita» zela (Zelaieta, LUR, E. Aierbe). Ikastolak «marxistak» direla (Arenaza), etc. Klasifikazio hau, letra inprimatuz baino gehiago, esamesen bidez zabaltzen dira, eta iraunkortasun haina aldakortasun bizi eduki ohi dute. (Ez

dago esan beharrik, klasifikazio denak ez direla besterik gabe okerrak).

Hau ere, jeneralean, problema bera alde batetara utzi, eta haren ingurumarekin enplegatzeko modu bat izaten da. Batez ere, klasifikazio hau susmo simple eta oinarri-rik gabekoei obedituz egiten direnean, «ezkil hotsek esaten dutenetik» (E. Osa). Eta gehienetan halaxe egin ohi dira.


Honelako klasifikazioak ez dira beti «txartelaren» moduan egiten: judizio alderdikorregiekin ere gauza bera egiten da, funtsean. Uste dut, ni neu ere behin baino gehiagotan erori naizela huts hortan. Baina erori ez naizen kasu bat hemen aipatzea, barkatuko dit noski irakurleak. Ibon Sarasolaren Euskal Literaturaren Historia-n esaten den guziarekin konforme ez nagoena, franko garbi erakutsita nago. Baina Azkarraga-tar Pelik ez daduka, erakutsi dudana baino gehiago zergatik ikusirik, GOIZ ARGI-n. Eta Euskaltzaindiaren komisi-ore batek liburu hori saritu badu, bidegabeko iruditzen zait, sariztapen horren kontra nire izena atar-ratzea.

Beraz, problemak pertsonalizatze-ko eta sikologizatze-ko joera gogorra dago, horrela problemak bestelakotuz eta faltseatur. Hau ez da harrigarria: hain zuzen gure ego-era sozialean inguratzen gaituzten kondizio sikologikoengatik berengatik. Persegizio giroak, klandestinitateak eta klandestinitateak, informazio agiririk ezak, lanaren gehiegiaz eta segurantzirik ezak, ditugun medioen eskasiak bezalaxe, horixe errazten bait digute. Gainera, gauzaren beraren edo problemaren beraren azterketa sakonagoak zailak dira, sustraiak argitu nahi izanez gero, sustraiok ia beti lurpean izkututzen dira-ta: eta euskal «turpe soziologikoa» konplikatu bezain misteriozua eta korapilatua da.

BERRIZ ERE AMORRAZIOA

Beraz, problema asko eta haundiak daduzkagu, problema zailak daduzkagu, eta ez dugu gauza haundirik egiten, problemaotan argirik egiteko. Alderantziz, lan asko egiten dugu, iluntasun gehiago sortzeko: arazoak neurri gabeki ideologizatuz eta sujetibizatuz. Problemaren inguruak beti problema bera baino inportanteago bihurtuz.

Problemak hainbeste ideologizatzearen edo hain itxuragabeki sujetibizatzearen kausa inportante bat, berriz ere, amorrazioa da. Euskal kulturaren langileak, zahar-rrak nahiz berriak, amorrazioz beteta agiri dira. Arrazoi diferenteak edukiko dituzte, noski: elkar-reen amorrazioz bait daude. Baina amorratuta denak daude, ikus daitenekenez.



ru-Altunaren Hitzaurrea ez zait amorraziorik gabe idatzitakoa iruditzen. Eta Mitxelenaen erreazioa ere ez zen amorraziorik gabekoa. Arenazak dispartzen dituen arrazoipideak ez dira amorraziorik gabekoak, etab. Adibide moduan bakarrik aipatzen ditut guziok.

Ez noa ni amorrazio hauk zuzenestera edo gaitzestera. Konstatzera bakarrik, oraingoz. Dударik gabe, bakoitzak bereari onerit-ziko dio. Baina beste honek ere duda haundirik gabekoa iruditzen zait: Ukronia inspiratu zuten amorraziorako arrazoirik falta ez bada (ta ez da falta!), Ukroniak berak

irakurle askoren bihotzetan inspiratu zuten amorrazioari ere, arrazoirik ez zitziola falta. Iruditzen zait, behintzat. Eta berdin Haranburu-Altunaren Hitzaurrearekin edo ANAITASUNA-ko (zenb. 245) Larresororen tesiak direlakoarekin. Hau da, gure egoeran amorrazioa zinez konprenigarri da, alde batean eta bestean. Konprenigarri eta gehiago. Baina amorrazioak amorrazioa biztu ohi du: batzutan halaxe komeniko da, gehienetan ez, eta zaila da «haserretu eta be- katurik ez egitea».

Jose AZURMENDI

“ZAZPIRIBAI” ENDAIAN

Apirilaren 17an, gaueko 9etan, Endaia-ko «Varietés» zinema le- kuan, «Zazpiribai» deitzen den espektakulua agertua izango da. Aurretikako aipamenetan adierazi zen bezala, espektakulu hori kantuz, dantzaz eta poesiz osatua dago. Bertan parte hartzen du- tenak, Bidasoaz bi aldetako kantari eta soinulari ezagunak dira. Horrela, Manex Pagola, Peio Ospital, Pantxoa Carrere, Iñaki Ur- tizborea, Patxika Erramuspe, Ugutz Robles Arangiz, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Loli Ansa, «Argia» dantzari tal- deko dultzaina-jole eta soinulariak, etabar.

Lehenago, urtarrilaren 29an Baionako teatro munizipalean «Zaz- piribai» jokatu zenean, mugaz hemendikako zombait jende sartu ezinik geratu zen, hainbesteko jende multzoa bildu baizen teatro- ra. Oraingo hortan, egun hartan Baionara biltzeko betarik izan ez zuten guztientzat jokaturia izango da, bereziki. Horrela ba, inguru hauetako jendearentzat Endaia oso toki egokia izango delakoan hautatua izan denez gero ea espektakulua ikusteko intentzioa du- tenek aurretik sarrera eskuratzeko alegia egiten duten.

Endaia-ko emanaldi honekin, alde aurretik erabakia zegoen zikloa hesten da. Horrek ez du esan nahi aurrerago ere beste zombait herritan «Zazpiribai» agertua izango ez denik; hala ere, ekainaren hasieran, Baionan, ikastoletaz arduratzen den «Ikas» era- kundeak prestatuko duen beste emanaldi batekin, programazio- aren zatirik garrantzitsuena osaturik geratuko da.

Horrela ba, garai egokia dela uste dugu euskal kanta eta scinu zahar eta berriak maite dituztenak Endaia aldean biltzeko.

G. L.

MENDI - MENDIYAN

Bizkai aldea eta batez be Bilbo aldea urduri bizi baten daukagu. Hil honen 29 eta 31 egunetan donostiar gazte baten, Joxe Mari Usandizagaren euskal opera bat entzun eta ikustekoak gara.

Azken alderako urte honeitan aldakuntza haundiak izan ditugu gure Bilbo honetan. Amaikatzko gauza aipatu genezakeen arren, bat bakarrik aipatuko dot: Lehenago be euskal-zaletasunaren aldetik gauza haundirik ez ginan baina, lantegi keak eta behetik gorako indarrak nagusitu ainean, hemengotasuna be galtzera eroan ginuzan. Baina sustraiak ondatu arte ezin daiteke ezer zehatz igartuta dagoenik esan eta oraingoan ernemin barriak nabaitzen ditugu: Bilbotarrak Usandizaga-ren "Mendi-mendiyán" euskal opera emotekoak dira. Ez da gauza haundiegia, ausaz, baina ezer be eza baino gehiago da. Etxeko musika doinuak aurrera ataraten saiatzeak ez deusku kalterik ekarriko. Horrek ez gaitu gagozan baino desjabetzeagora eroango.

"Mendi-mendiyán-en" sortzea ez zan beste munduko gauza ezin, bai zera. 1886 garrenean hasirik, Bilbok "Sociedad Coral" bat eukan. Gizondurik egiazala erakutsi nahirik, zerbait egitea erakagi eben, baina entzutea izan behar eban. Abeslari talde horren zuzendaria Joxe Power genduan sasoi hareitan. Berak asmau eban langaia. Berak idatzi eban geroagora euskal opera izango zanaren letrea. Musika alderdiari begira nori emon otera horrelako arazoa? Donostiar gazte bat etorren su ta gar, gora eta gorako gara betean: Joxe Mari Usandizaga. Berari eskeini eutsoen eginkizuna. Hogeita bi urte eban lanari azkena emon eutsonean. Beste gipuzkoar batek euskeratu egin eban. Gitxitan entzungo genduan gipuzkoar horren izena: Pepe Artola dogu. Beste euskaldun batek, gure txokotik kanpora Paristik eta ibili zan euskaldun batek egin zituan agerrialdien jantzi eta bestelakoak. Eta ondino be bizirik dagoalako, ezingo dogu bere izena ixilpean itxi. Opera arazoetan asko ikusi eta ikasi ondoren Usandizagaren "Mendi-mendiyán" jantzi ebana Eloi Garay dogu. Bilbon bertan bizi da. 1910. maiatzaren 21ean, "Campos Eliseos" antzertokian emen eben lehenengoz. Eginkizunaren eta lanaren astunena euren gainera hartu ebenak, Bilboko "Sociedad Coralekoak" izan ziran. Egun haretan bakarka abestu ebenen ar-

tean bizirik daukagun bakarra, orduan ondino mutiko ta "Txiki-rena" egin ebana, gaur be bizirik daukagu. Kosme Duñabeitia deritza.

Bada beste zeratzko bat be jakin beharrezkoa: Lehenengoz abestu ebenak, guztiak ez baina gehientzenak, bizkaitarrak genituen. Oraingoan alderdi askotakoak dira. Honeitxek dira bakar abesleen izenak: Andrea, Ana Maria Ruiz de Chacon; Joxe Mari, tenor abotsduna, Xabier de Solaun; Gaizto, abots beherena, Julio Catania; Juan Kruz-ena, Isidoro Gabari; Kaiku, Pablo Laca; Txiki, Mikel Anjel Unzué; Artzaina, Ramon Aginaga. Orkestaren zuzendaritza, Urbano Ruiz Laorden-ek; agertokiko zuzendaritza, Luix Mari Iturri; Agertokiko musikaren zuzendaritza, Juan Joxe Aparizio; Ixil-esalea, Paskual Barturen; argiarena, Inaki Gutierrez; agertoki jantzi arazoetarako maixu, Tomas Adrian Malo; dantza alderdiak, Ballets Olaeta; abestaldekoa, Bilboko Sociedad Corala; eta guztien jantzigarri, Bilboko Orkestra Sinfonika.

Saiaketak jo ta su bizian doaz eta saiaketa be tea eginak danke. Hil honen azken egunetan, 29an eguen gauaz eta 31, larunbat gauaz emongo deusku donostiar Usandizaga gazteak egin eban euskal opera bizi hau.

Musika ez dogu guztia, ezta gitxiagorik be. Badakigu amaika aldiz folklore hutsaren maila desjabetzaren katea bat baino besterik be ez dala izaten, baina kulturaren alderdi bat dogunez gero, ez dot uste gure musikaren arpegia hautsez zikintzen itxi geinkeanik. Gaurko egunean euskal musika atseginez entzun ohi dogu. Zaharra dala, abestaldeena dala edo barria dala, beti entzuten dogu atseginez. Baina nik itanduko neukena bestetxo hauze izango litzake: "Mendi-mendiyán" dala-ta hainbestearinoko musika-zaletasuna itzartu jakunez gero, noiz ikusi eta entzungo ete ditugu barriro Guridiren "Amaya" edo "Mirentxu", Eskudero-ren "Zigor" eta beste antzeko batzuk? Euskal musikak gorakada hartu dabela esan geinkenez gero, aurrerago be joko ete dogu? Euskaldunen eskuetan egongo dala esango neuke. Beste hau behintzat gure eskuetan dago: Azkar bagabiz Usandizagaren "Mendi-mendiyán" entzuteko aukera eukiko dogu.

JAIZKIBEL

PASAIA IDAZLE BAT JAIO DA

KOLDO IZAGIRRE

Altzatarra. Pasaia Antxon bizi da hamabi urtez geroztik. Hemeretzi urte ditu eta «Filosofía y Letras» delakoa ikasten ari da Donostian. Lehenik zerbait eginik bazuen ere, oraingo honetan argiro azaldu zaigu bere zereginetan: Donostiako «Biblioteca Municipal»-ak eratuakotako lehiaketan lehen saria eskuratu du ipuin mailan eta aipamen berezi bat poesian. «Juvenil» mailan denen garaile gertatu da. Beregan jo dugu iritzi eske.

—Zorionak, Koldo. Bi sari irabazi dituzu, bat ipuinena, eta bestea olerkiena.

Nola sentitzen zera gehiago, idazle ala poeta?

—Poeta sentitzen naiz batipat. Badakit aitormen arriskutsu xamarra dela, zeren eta poetak beti eduki ohi du fama alu bat. Halarik ere, sinistuta nago prosaz olerkia egin daitekeela.

—Zerk eragiten zaitu idaztera?

—Ene barruan borroka bizian dabilzaten kezkek, eta gure inguru tristeak, herriak sufritzen duen hainbat injustiziak.

—Beti kontsideratu izan da ipuina literatura kaskartzat, nahiz eta Guy de Maupassant, Chejov, edo Barojaren ipuinen garrantzia inork uka ez. Ipuilari bezala, zer derizkiozu?

—Ipuinak ezin dezake nobela baten luze-zabalera har, ez eta haren sakontasuna ere. Dena dela, nerretzat oso da garrantzitsua ipuina adierazpide bezala. Gainera, ipuina badu halako zailtasun bat, erazkerian ez erortzeko, hain zu-

zen.

—Zure olerkiak irakurri ondoren, gizonagatik preokupazio bat ikusten da. Zer esan dezakezu hortaz?

«Haizea baretu egin da, gizona mututu. Haren protesta isilez ez da zeru-mugarik suntsitu...»

—Bai, gizonak, gizon osoak kezkatzen nau. Horregatik ahalegintzen naiz muturkerietatik baztertzan, ezker eta eskuinekoetatik.

Guztiz ere, idazleak gizon konkretora bilatu behar du, eta noski, gizon konkretora mila mutur du.

—Existencialismoaren influentzia ala?

—Dударik gabe, existencialismoarekin ezagutza egin nuenean astinaldi gogor bat jasan nuen. Camusek berak badu zer ikusi hone-taz. Baina oso kontuz ibili behar ukan dut, existencialismoak etsipen bat bait dakar gehienetan. Eta gizona, idazlea zer esanik ez, ezin daiteke mundutik urrun.

—Zein dira gehien kutsatu zaituztenak idazle-lanetan? Eta poesiantzian bereziki?

—Idazteko barne irriki bat ukan dut betidanik. Hasiera batetan edaraz aritzen nintzen, baina etxeko giroaren eta zenbait laguneren eraginez euskerara itzuli nintzen. Ikasketa gogorra izan zen. Literatura zaharra poliki aztertu dut, eta asko ikasi. Bai eta herri-literaturan ere, bertsoetan.

Letek barne-barnean jo ninduen. Geroztik anitz influentziak ukitu nau, Spriurenak batez ere. Mikel Lasa oso gogokoa dut.

—Zuk dudarik gabe, heldutasun bat lortu duzu. Esan itzazu zeure bilakaeraren puntu garrantzitsuenak.

—Poesia hautatu nuen lehenengoz, errazena delako eta anarkia itotzen ez duelako. (Geure artean anarkista bat nauzu). Oso poesia arinak ziren, amodiozkoak eta protesta-ingerutsu baten giran moldatuak. Poesia gero eta gehiago landu dut, nolabaiteko heldutasun bat-lortu dut, teknikaz batez ere.

Nobelak tentatzen nau egun, beregan literatura-sail guztiak biltzen direlako.

—Eta ia bukatzeko, Koldo, zein da euskal literaturako etorkizunaz zure aburua?

—Literatura hutsaren etorkizuna ez da hain erraza igartzea. Sor-ketak ez du langile askorik. Arestiren jarraitzaileek, Kintanak ez bestek, ez dute lan berezirik egin.

Nobelagintza orain hasten ari da. Literatura, gauza argia da, irakurleagoan du etorkizuna. Eta irakurleagoan ugaltzea... baina hau arazo luze bat dugu.

—oOo—

Guk geure aldetik espero dugu lanean jarraituko duzula eta hortara animatzen zaitugu. Zorionak, eta ea noiz dan hurrengo fruitua.

«Ezin bada kantatu bizitzari, ezin bada bizitzetik bizi, hil gaitzen harengatik!»

XABIER PORTU

“badator udaberria”
TRESILLOAK...oso merke

“1973rako berri berriak”

MOD. ITALIANO 15.375 pezeta edo hilean 630

MOD. SORRENTO 22.750 pezeta edo hilean 750

MOD. SORAYA 29.550 pezeta edo hilean 950

EZ DAUZKA BESTE INORK

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA

MORAZA, 3 eta 14 an


SAN MARZIAL, 12 an

DONOSTIA

IRUN

ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

askoz ere merkeago eskura ordainduz




TXIMIST-INDAR SAILLA

Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO-INDAR SAILLA

Departamento HIDRAULICO

GARBE-LAHMEYER

WUPPERTAL - ALEMANIA'ke

Etxearen banaketa ta teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:

REX-ROTH GMBH Alemania

RUHRITAL Sp A Olie-indarra. Italia

TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO



Lantegi ta landolag:

Jolasokieteta (Herrera)

SAN SEBASTIAN

Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860

Telex. 36173 GOIME E

Erakusketa eta dendak:

Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN

Urrut. 428082 ta 428085

Ordezkaritza:

Eulio Sordán, 18. Urrut. 220635-36

VITORIA

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA

ayestaran

DONOSTIA

BURNI - SALGAIK

Urbeta, 25

ELECTRODOMESTICOS

ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK

Urbeta, 27 - Isabel II, 2

RAILITE

LEGEZKO

ZABALTXAILLEA

Aldacona, 4

Urrutizkiak:

44300 ta 426787

Isai donibane

DO IZAGIRRE

pan den asteen, «VII. Literatu-ehiaketa gazteentzat» ospatu zen izenburuko Kutzaren babesean. Hona jaun hauek osatu zuten ma-burua: F. Sagarzazu, Karlos uti, Eulalia S. Agustin eta Jose Aranaldek.

pui sailean, Koldo Izagirrek, Pa-Antxoko 19 urteko gazteak irazi zuen «EGUNKARI 72» ipuia-re-

Olerki edo poesia sailean, aipa-n berezia jaso zuen idazle gazte-nek, «HAMABI GOGOETA» oler-iz.

Ez dugu personalki Koldo Izagi-egagutzen; baina, asteroko hon-«Pasaja Antxoko berriak idazten duela jakin dugu. Bai ondo idatzi-t!

Hona bada, Gipuzkoako alderdi-Jaldunduenetako batean, EUSKAL-azle hazia loratzen ari zaigula- rionak hiri Koldo adiskide eze- gun hori eta E-K-I-N aspertzeki!

INCIPE DE VIANA

Hau duzu, irakurle, Nafarroako-putazioak zabaltzen duen hilerot-baten izen-burua. Sosik kobratu-be har dezakete nafarrek hir-roko hau. Lan dotorea eta ikas-je ederra euskal probintziaren-antiarientzat!

Azkeneko alean, Jose M.® Satrus-gi idazle ezagunak, hau dio mai-batzuen jokabidea salatuaz: iratsun-go maisuak, etxez etxe-azkiren (kartearen) bat zabaltzeko- mo maltzurra izan omen du, gu-soak euren haurrei euskeraz ez- antzatzeko esaten».

Eratsun herrixka hau Leitza in- ruan duzu eta gure herrian bizi- ten Batista Mariezkurrena eta be- arreba hor sortuak dituzu. Ale- rean, honako hau idazten du: «Uela lau bost urte bakarrik es- lan euskeraz hitzegin zuen hau- rri konpatzaren orratz muturrekin Chia (mingaina) hartu eta ahoa- oldu zion maisua ere ezagutu- gu, zoritxarrez, gure artean. Eus- ldunen semea hau ere...».

Gu lerro hauek irakurtzen ari- ralarik, ezin sar buruan honelako- kabide maltzur eta zitalik, egun- in daitekenik. Arbuigarriak eta- zkgarriak benetan! Areago eus- ldu seme izanik!

Zergatik ez duzu, Eratsun-go- aisun jaun horrek EUSKERAZ ze- rrek ikasten! Zure sasi jakindu- z, euskera mespretxaraziz Herri- iztia bortxatzea baino hobe ze- ke!

Kalte ikaragarria egin diote ho- lako kasuak euskerari!! Nola errepara daiteke Eratsun-go- aisunak egindako malturkeria hau?

ANTI LAZKANO

Martxoaren 24ean, «Arrateko igo- a» ospatu zen. Gure herrian bizi- n Xanti Lazkano txirindulari fa- tuak irabazi zuen. Gogoan izai- p badugu, 1957 urtetik (urte hon- i Jose Mitxelena irabazia) ez- dela Gipuzkoar batek sari hau ja- si. Merzimuendu gehiago ematen- o Xantiri sari hau irabazteak. Har beza Xanti adiskideak gure- rionik bereziena!

GUR Dn. JOSEBA

Orain arte PYSBE lantegiko izan- ako parejatan (Ciclón eta Ráfaga) ta Serrat-ek berriki erosiak, Dn. Joseba Beobide apaiza, Terranoba- untz abiatu zaigu, aurreko urte- tan bezela. Ondo izan, eta ez za- ula umorerik gall!

INALURRETAK

arrasate

ZKENEZ ETSITU DUTE

Hilabete mordoxka polit batez- urte pare bat bai, noski!) zirkula- o errodatu delakoan arrisku bi- a zena azkenean konpontzea era- ki dute. Bazen garaia!

Zigarrolatik San prudentziorantz den lehenengo zubian (dakigunez aspaldi baranda galduta eta pisoa zeharo ondatua zeukan) azkenean ikusi ditugu bide konpontzaileak edo, beren egin beharretan jo eta ke (behar bada ke handirik gabe baina, tira!). Burokrazien akatsak.

HERRI FAMATUA

Erdaraz «Villa de Mondragón» deitzen zaio gu bizi garán Arra- sateri, eta batzuetan Mondragon izenakin eta besteetan Arrasatekin, bietara, deritza. Aberatsa noski, bi- eratarra deituta ezagutzen baita gu- re herria.

Bietara deitu, eta lau aldetara za- baldu bere izena, ugaritsuak izan- nen gara, besteek multiplikatzen diren bitartean gure fama «koa- dratu» egiten baita.

Azkenengo aldizkarietan ere gu- re herriaren gain zerbait agertu da. Mundu guzira gure begira dago. Zergaitik ote? Orain gogoratzen naiz nere aitxa-jaunak esaten zeus- tanarekin: «Behin batean bazan... izena zeukan gizon bat, diru gabea zen, zer galdurik ez zeukan ta hasi zen zerbait egin nahian, baiñan inork ez zion laguntzen. Azkenean lan neketsua egiñaz

dirua egin eban. Orduan danok Don esaten eutsien, eta jendea lagun- tza eske etortzen jakon baiñan be- rak ezer ez zeukienei bakarrik emat- en eutsien. Ez ote dago hor sekreto zertxo- bait? MASKELU TALDEAK-5-

beasain

SOINUJOLEAK

Bai! Martxoaren 25eko eguerdiko 11,30etan Soinu-jole sail bati entzun ahal izan genion Usurbe zinean. Bikondoa Maixuaren eskola osoa ikus ahal izan genduen. Lehen zatian, soinu-jole bakartiek ihardun zuten. Hiru beasaindar: Inmakulada Odriozola, Juan Inazio Zumarraga eta Julian Urkizu; eta bi ordiziar: Begoña Aierbe eta Jose Inazio Aierbe (hau Europako txapelduna bere mailan). Gure ulermen laburrerako denak jo zuten bikain bakoitzari zegokion mailan eta bereziki azke- nekoak.

Bigarren zatian berriz, Soinu-or- kestarti entzun genion bere Maixu eta Zuzendari den Migel Bikondoa jaunaren zuzendaritzapean. Hogeita gehiago soinu-jole batera. Orkesta bikaina!

Rossini-ren doinuak iaioiki astin- du zituen eta Bikondoa beraren «Donosti da donoki» ere bai, beste zerbait konponketa berak eginikoak tardean zirela.

Jaialdia-aren aurkezle Jesus Lete «Ibai-ertz» jauna, beti bezain egoki eta jator. Aretoa erdizka bete zen. Merezki zuen gehiago! Dena den, gure artean ez-egagun samarra zen atal bat ikusi eta berari entzun ge- nion, hots Soinularien Orkestari. Une batez, Alemanian edo Italian geundela zirudien, baina, bai zera! Donostiakoa zen Orkesta, zerbait gipuzkoarrez osatua eta Goierritik (Beasain eta Ordiziatik) bereziki hornitua. Ez genduen uste herrian eta ballaran horrenbeste soinu-jo- tzaile zegoenik!, eta are gutxiago, maila hortakorik! Zorionak bada Bikondoa jaunari eta bere ikasleei ari duten lanagatik eta ea Euro- pako sariak eta mundukoak etxera- tzen dituzuten! Hala opa dizuegu.

ZAPATARIKO BIDEBIRA

Zapatari deituriko etxe-aurrean (Indar lantegiaren ondoan) bereal- diko bidebira txarra zegoen gure ezaguera baino lehenagotik ere. Le- hen ordea, banaka ibiltzen ziren beribilak baina orain milaka. Duela zenbait urte, haurren bat edo beste ere hil zen bidebira horretan, eta beste zenbait mutur-jotze ere izan dute beribilek elkarrekin. Bira itxia baino ere, ikuskizun gabeziagatik da txarra. Azkenean ere, Udaletxe- ko berrietatik jakin ahal izan du- gunez, ZAPATARI eta MURUENA- MAIZENA etxeak bota eta bidea zabaltzea erabaki dute. Dagoen ibi- lirako mesede handia izango da eta oinezkoentzat espalo! bat egi- ten badute, ez da kaltetan izango, orain ez dago oinbiderik eta.

MURUMENDI

bilbao

BILBAO ETA EUSKERA

Bilbao erdal giro batean bizi de- la, denok dakigun zerbait da, nos- ki. Industrializazioa hasi zenetik Es- pañiatik jende asko etorri baita, eta zer esanik ez azken urteetan. Gaurregun ere, nahiz eta gutxiago, oraindik etortzen direla esan de- zakegu. Problema ez da etorri ala ez etorri, etortzen direnak gure hizkuntza, nortasunaz eta izaeraz ohartu ditezela, baizik.

Dena den, ez gaitzela pesimis- mo batean eror, eta euskal era- kunde zenbait aurrera dijoala ere konturatu gaitzen. Euskal Kultur Mintegia, Euskaltzaindia, E.K.T., eta abar. Hauei eskerrek, gazteak eta hain gazte ez direnak, euskera ikas- ten ari dira, euskal giro batean hezitzen.

GELDIUNEAK

Aspaldi hontan gogor dabilta lan- gileak. Euskalduna, General Elec- trica, Bakcok-Wilcox, Scide, Cade- nas y Forjados, Astilleros eta Na- val lantegietan geldiu-neak ukan di- tuzte, beren eskubideak errespetat- uak izan ditezten. Navalean hiru mi- lla dira bi hilabetetarako bidalitako langileak. Ez da nolanhikoa izan- go, zenbait familiaren larri ueña.

APARKAMIENTO BERRI BAT

Herri hontako Udaletxeak bere- bilak uzteko toki falta konpontze- ko, tresna berri bat erosi du, kan- poan «grua» deitzen dioten traman- kulu horietakoa: Oso da egokia, ustekabean berehala eramaten ditu kotxea toki seguru eta aparteko batetara. Gerokoa, badakizu... UDABERRIA

Heldu zaigu udaberria, pozgarria, atsegina. Baiñan, denentzat ote? Zenbait entzat, estudiantentzat «saltsa» garaia esamifien gatz eta piper eta guzti; langillentzat egur- raldi aldia ere ez ote da?

LIZARRA

saldias

GURE TXOKO SALDIASIK

Bizia ibiltzean agertzen omen da. Nik ez dakit zerengatik, baiña gu ere Jabiererra, gizonen egunean, oiñez joan gabe ezin egon gera. Jabiererra oiñez joateak mesede aundia egiten dio gure arimari. Eziketa latza baita.

GOROSTIETARA BIDE BERRIA

Aspaldixkoan aoz-ao dabilen so- lasa da, aurten irekiko dutela emendik Gorostietara bide berria edo karretera. Solas bide au egia den ez dakigu. Denborak esanen du.

Guk entzun duguna da, Diputa- zioak onartu duela, aprobata duela bide berri ori egitea eta egin sa- rien erdia, amar urtez ordaintzeko, eskatu diela inguruko erri auei. Geroko herririk ez dakigu.

Naiz ordaindu bear asko izan, nere iritzia da, bide ona bezin gauza aberatsik ez dela lur gai- ñean.

ERRIAREN PINADIAK

Gorritxikikoa orain ari dira ba- kantzen. Ez nuen uste ainbeste zu- raje aterako zenik. Orain bikain gelditzen da.

Berreuntzun eta Caltzarra pres- taturak daude laraiatzeko. Aurten landatuko dituzte. Lan ontan ari dira heuen gain artuta Arretxeko Jesus, Olazarreko Zelestino eta Koskorrenko Gabriel. Oso jokatze ona da erriaren aberastasunak a- zitea, utsik dauden terreno eta der- mioak leen bai leen landarez be- tetzea.

A. D.

herrera

ETXEKOANDREAK MUGI- TZEN BADIRA...

La Paz hauz ugaritik ere bada- tozkigu bizitasun hotsak. Izan ere, hasi berriak dira bertan, Aurrezki Kutxa Municipalak eratuta, etxe- koandreetzat hitzaldi batzuk.

Haurren heziketa eta sikolojiaz izan dituzte lehen hitzaldiak; na- hiko interesgarri, gainera, diote- nez. Eskulanetan ere ihardun dute zertxobait.

Hori gutxi dela, Aurrezki kutxa honek Monea baserri zaharrea ireki behar duen sukursalean leku berezi batzuk jartzekotan omen da gisa honetako eginkizunetarako, hots, hitzaldi, sukaldaritza, esku- lan, jostundegi, etxe barruko araz- o etab...

Beharrezko gauzak betetzeak ez du, noski, txalo berezirik merezi. Gauza normala baita. Eta, alde hortatik, Aurrezki kutxek balukete zer egin oraindik... Baina, tira, etxeokoandreei holako aukera emat- ea zerbait bada eta ez litzake on aukera hori aprobetxatu gabe ihes egiten uztea.

AFARIAK ETA DEPORTEA

Ez zazueta pentsa C.D. Herrera- ko bazkideak afariak egiten baka- rrik direla iaioak. Joan den igan- dean, izan ere, cross lehiaketa bat antolatuta zuten, Banco Guipuzco- ano-ren laguntza zutelarik.

Besterik ez bada, igande egue- rdi-ko giroa piztu zuten behintzat. Gazteen mailan F. Sanz-ek irabazi zuen; «seniors» mailan, berriz, de- nok espero genduen bezala, Arto- la agertu zen nagusi burutik bu- rura, Mitxelena atzetik zuela. Tal- de bezala ere herreratarrak izan ziren irabazle.

Sariak banatzea diru usaian egin zen. Ez zen inor Banco Guipuz- coan-ren hizki nagusi eta deiga- rriak ikusi gabe geldituko. Letrero horren itzalean ere egin zitzaion Fidel Acedorri, Cross horren le- hen edizioa irabazi zuenari, ome- nalditxo bat. Itzal bera izan zuten Kresala taldekoek ere beren dan- tza saioa eskaini zigutenean.

«VAMOS AL MONTE, MUTILAK»

Ez daude lo gure arteko mendi- zaleak, ez horixe. Oso fin ari zaiz- kigu, besteak beste, ibilaldi poli- tak antolatzen; urte guziko pro- grama ere egun hauetan zabaldu digute. Txalo besterik ez dute me- rezi horrela saiatzzen direnak.

Baina —beti dago «baina» bat gure artean— ez ditugu ondo uler- tzen programa horretan azalduri- ko zenbait gauzako. «Mendiko la- gunak» ipintzen dute programen hasieran; gero programa, luze eta zabal, erdara hutsean dator; eta bukatzeko «mendira joan behar degu» ematen digute agurra gisa. Ondo al dago? gaizki al dago? nahikoa al da? gutxi al da? pa- rregarri al da ala ernegarri? Ba- tek daki! Bitxi xamarra behintzat bada.

JO-GU-KAR

ANDONEGI

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

ATEA OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2 (Esquina Zubieta)

DONOSTI

tolosa

IKASTOLA

Berriz ere ikastola aipatu beharrean aurkitzen gara. Izan ere jasan behar dituan erasoak ez dira nolanhikoak. Orain ere lege berriari esker andereñoen soldadak, eta seguro sozialak direla bide, presupuestoa gaindituta aurkitzen gera. Haiek danak laguntza ofizial bat ez dutelako noski. Baina horregaitik ere aurrera jarraitu beharrean gera, eta behar diran neurriak hartu eta prolema hori zuzentzen saiatu.

Diru bide edo iturriak eratu eta aurrera eraman beharrean gara, ta honetarako sortuak dira bakar batzuek. 1) Industrietako laguntza gurenganatu. 2) Asteroko xozketak. 3) Jaialdiak. 4) Seguroak egin, komisioa ikastolaren alde geratzen delarik, beraz, herritarrok harrera on bat emanen ahal diozue; ea dion arloan gure ikastola zutik mantentzen dugun.

HAMABOSTALDIA

Iaz bezala aurten ere, Lizardiako hasiak dira beren hamabostaldiarekin. Jakin dugunez jende berri anitz sartua da laguntzen, eta joan dan urtekoari ez diola ezeren zorrik izanen, beraz, iazko hazia itsatsi dela dirudi.

Hiru bat soziedadetako gazteak eskenia dute beren laguntza eta ea beste batzuk ere biltzen diran, hoiek eraginda.

Hurrengo batean emango dugu programaren berri nahiz aldaketaren bati mugatuta egon.

JAKIN

Nahiz Arantzazun izan bere jatorria eta bertakoa izaten jarraitu, Tolosan sustraiturik darduzka editorial honek, bere bulgo eta zuzendaritza. Joseba Intxausti langile pizkorren eskuetan hain zuzen ere.

Joan dan urteko lana ez da makala izan, ala zankoa, ta aurten ere dagoneko hasiak dira bere haurtoak argia ikusten.

Azken liburua (Elkar lanean) «Koperatibak» izenburuak in osó harre-ra ona ukan duela esan digute eta euskal aldizkarietan jaso diran kritikari kaso eginez gero, ez dago besterik pentsatzerik. Liburu irakurereza, ulerkerria, eta benetan interesgarria.

Ederki azaltzen ditu munduan zear (Euskal Herria barne) koperatibak duten eragina eta alderdi bakoitzean duten bereiztasuna. Arpidedun egin nahi izan ezker C/Cuartel n.º 2 Tolosan.

IHAUTEAK
Ihauteak ihaute, aurtengoak joan dira beste bat arte, bitartean gizar eta euskal arloan saiatzen algerade, Edo zer!

ASENTXIO

deba

Aldi ontan gaxo larri asko izan ditugu gure errian, beintzat Donostia ta Eibarko Kliniketara joan bearrekoak. Ala ere asi dira sendatuta etxeratzen ere eta gure poz-agurra egiten diegu.

Larri eraman bazuten ere, ondo sendatuta etxeratu da Urasandiko etxeokoa jator Z. A. zalea. Andre ezagun-egaguna da gure errian Egañaren Albizuritar Maria, eta opa on ori guziek izan diote.

Berdin Petrita Aizpurua anderea emengo piano irakasle ezaguna. Donostian degu San Antonio klinikan, erori eta besoa ausita. Bereala osatuta ikusi nai degu bere etxean, ongille aundi dan emakume kristau zintzo au. Badu gaur, Eliza amak, onelako emakumeen bearra bere bizian gogo guziz era guzietara mirabe zintzoa izan du ta.

Baita Egaña Erramun ere San Antonio klinikan degu. Jaungoikoari eskerrak etxeratzeko pozetan. Kristau zintzo eta euskaltzale gogotsua degu gizon gazte jator au.

Azpeitiatar Sotero ere sendatze-ko itxaropen onez. Ea ba mutil, noiz etxeratzen aizen ire adiski-

deak zai-zai dituk elkar-artean noiz ikusiko eure-eurea dean umore onaz.

Itziartar Erroke gizon gazte jatorra ere egun larriak igarota sendatzeko bidean degu Donostiako Kliniketan. Onek ere izango du etxeratzeko gogo bizia pasatuak pasa.

Etxeratu baita Rosario Ostolaza andrea ere. Ongi etorri dedilla etxe aldera, orrelako tokiak utzi al izate zorian aundia izaten da ba. Orra zenbat adiskide ditugun egunik txarrenak igarota orain pozetan. Geu ere pozetan gaituzte geure opa ona eurentzat dala.

TENE MUJKA

baztan

MUTIL-DANTZA

Donostiako "Goizaldi" Dantzari Taldeak aurten 25 urte betetzen dituela eta hortaz bere zillar eztaiak ospatu beharrez, kultura, folklore eta beste zenbait ikusgarri antolatuta ditu. Baztandarrak ere "Goizaldi"ren antolaketa hoietan leku berezi bat ukan dugu, Baztango izena ohoratua izan delarik. Martxoaren 15ean Donostiako Udaletxeko Sala Nausian, Nafarroako Dantzari Elkartearen Zuzendari den Patxi Arraras jaunak Baztaneri buruz hitzegin zuen, denbora berean Arizkongo mutil-dantzariak saio eder bat egin zutelarik.

Patxi Arraras jaunak Baztango ibarraren gauzetaz mintzatu zitzaizun, hemengo herrietaz, ohituretzaz eta dantzetzaz. Lehenagoko denboretan egiten zituzten eztaietaz eta beren xehetasun guzietan garbiki adieraziaz. Hain famatuak ohi ziren "Ioiak" eta eztaie hoietan, Baztan-en egiten ziren eztaietan alegia, zer ohiturak izaten ziren eta nolako besta ederrak egiten zituzten. Arraras jaunak Baztango dantzetzaz ere aunitz mintzatu zitzaizun, Mutil-dantzak daukan nortasunari buruz eta bai irri-dantzak ere zein jostakinak diren ederki adieraziaz.

Arizkundarrek Sagar-Dantza, Bizker-dantza (edo ipurdi-dantza) eta Tellerin erakutsi zituzten. Patxi Arrarasek mintzaldia guziz jakingarria, ez genekizkien gauzak ederki agertu zizkigularik. Txalo ederrak ukan zituen. Gure dantzarien ekinaldia ere denen gogokoa izandu zen.

Berriz ere Baztango mutil-dantzak Donostiako hiri ederrean erakutsi ditugu eta egia erran egin kizun horrek pozez betetzen gaitu. Zorionak Goizaldi Elkarteari, Arraras jaunari eta goraintziak gu ikustera etorri ziren guziei.

M. IZETA

hernani

EZKONTZA

Ez gaituzue ezkontzak aipatu zale, baina Usurbillen San Estebango ermitan Joxanton Artzek eta Amaia Lasak elkarren arteko maitasun lotura sakramentuaren bidez sendotu dute. Haundi-maundien ezkontzen berri sarri ematen zaigu han eta hemen. Bi gazte hauek beste biderik aukeratu dute. Zorionak. Eta orain elkarlanean peesiarik sortuko dutelakoan gaudu. Zorionak bioi bihotzez.

IKASTOLAREN ALDE

Aurten ere, urtero bezala, Ikastolaren aldeko jaialdia ospatzera goaz, eta urtero ohi denez Galarrreta pelota lekuan, eta Apirilak 8an hain zuzen. Hernanik eta bere ingurutakoek ongi erantzun dute orain artean. Aurten ere Galarrretan betekada berdina ezagutuko ahal dugu.

Txorakeriak, alfer eztabaidak alde batera utziaz, gauzak seriozki aztertzea beharrezkoa dugu. Etsai asko du ikastolak, bai guztiok eza-gutzen ditugunak eta baita sasi-iraultzaileak ere, burgeskeria ikusteko beteaurtekorik baina ez duen

jenderik bait bai dago gure artean.

Eta gazteen erantzukizuna me honetan haundia da. Ikastolak akatsak baditu, baina hor dadukagu eta euskaldungoa salbatzeko behar beharrezkoa dugu. Eta mesedez harpa jotzeari utzi.

Andereñoak lanean ari zaizkigu su eta gar, dakiten iaotasunez. Gurasoak aho bete pozez txalotuko ditugu ezpairik gabe. Betor jai-aldia, betor ikastolaren alde Galarrreta betekoa duen jendea.

INAKI

elgoibar

EGIA GARAILE

«Ongarrik» bidalitako ohar bat jaso dugu eta honela dio:

Urtarrilaren 27an ospatu zen euskal kazetaritzari buruzko mahain-inguruan Anaitasuna eta Z. Argia izan ziren agertu zirenak. Hala ere; hain xuxen «Goiz Argi» eta «Karmel» euskal aldizkariak beren ezin etorriaren arrazoinak jakinerazi zizkiguten, bidali zizkiguten eskutitzei esker. Baina eskutitz hau berandu iritxi ziren gure eskuetara eta mahain-ingurua hasi orduan, ez genduen inongo aldizkarien berririk.

Ematen dugun albiste hau, Amatiñok idatzi zuena baieztatzearen egiten dugu eta egiairi zor zaion amoreagatik.

EZ GAUDE ESKU TXARRETAN

Gure traketskeriak eta kaxkareriak, gure ez jakinaren ezaugarri bezala zelakotan egon izan gara. Bestalde, gure inguruan jakintza eta kulturaren aldeko esloganak ere izanak ditugu «Jakintzak azkatuko zaitu» eta halatsukoak. Baina, oraintsu euskal aldizkari baten irakurriak, badirudi hau guziaz gezurtatzen duela. Ikasiak eta herrian eredu izan behar lirakenezan, euskal aldizkarietara joaz, eskandaloa sortzen ari zaizkigu. Lehenagoko bertsolari erdi-moxkorrek bezala, jendeari parra (kaso haunegar egiteko bada ere) egin araztearren, euren buruak erdi ezdakit zer eta «parragarri» geratuaz.

Ni ez noa arazoia nork duen aztertzer. Gainera ez du merezi. Bi eliz-gizon beste bi eliz-gizoni zozokeriak esaten eta zikinkeriak aurpegira botatzen. Konpunduak gaude bai. Ez gaude esku txarretan.

Gainera «gizonetik» «gizonera» erdera ederra erabiliaz, baina gure txanponak euren ganantzeko «GURI» euskeraz, hori bai. Nere herriko euskaltzale jator batek ere horrelatsu egiten du: Tabernan, Eusker eta Euskalerria goraldu ezinik, baina, seme-alabei erderaz, baina gutxienean ere txakurrari euskeraz egiten dio, behinik behinean. Hala ere, hau inoiz sotanarik jantzi gabea denez, ezingo gara gehiegi larritu.

PROBOKAZIOA

Amatiñoren atalean irakurri berri dugu, euskaldunok probokaziora pasa behar dugula eta ni horretan ba nago ere eta nere kiko aspaldi erabakia harturik egon arren, atajoan dagoela esan beharko dugu probokazio hori. Probokazioa bai, baina... nori?

Probokazio hori nori dagokion ikus beza bakoitzak.

Gure parrokiari GARIZUMA ITZALDIAK eratu berri dira. Talde bakoitzarentzat egunak eta orduak jarri dituzte. Ezkontuei, erdaraz eta berdin euskeraz noiz izango den jakineriaz. Baina hemen dator nere kezka. Gazteentzat hitzaldiak noiz diren bai baina nola izango diren ez du jartzen, horretarako zabaldu diren orrietan.

Baliteke, gu oker pentsatzaileak izatea baina bildur naiz igarriko ote diogun. Nunbait, orain arte eta sarritan esana den «euskaldun fededun» esan ordez «erdaldun fededun» esan beharko dugu, zeren gure herrian gazte euskaldunik ez bide dago.

Bainan gure etxeko gazteek, hitzaldi hoietaz zerbait galdetzen badigute edo joan nahia azaltzen badigute... guk zer esan?

Etxe-Pe-tarrek

Beasaingo Ikastola

Datorren Ikastaroan (1973-74ean) beren haurrak Beasaingo Ikastolara bidali nahi dituztenek, martxoaren 21etik apirilaren 18ra (biak barne), jo dezatela Erdiko Ikastolara (Erauskin kaleko 4-garrenean.) arratsaldeko 5-etatik 6etara eta asteazken edo ostiralez, edo ta Errekarte-alde edo ta Porteria-kora, haurren izenak ematera.

Hau, datorren Ikastarorako ditugun beharrak jakitearren egin nahi da eta mesedez, gerorako utzi gabe, orain egitea erregutzen dugu.

BEASAINGO IKASTOLA-ZUZENDARITZA (JUNTA)

ERAMAN - EKARRI reko AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIGAK ERRI GUZTIARAKO

Urruztegiak: 421369 - 427726


Iparragirre, 8 - DONOSTIA

bazkari onaren zanpagarria eta txararren estalgarria

LA CASA DEL CAFE
Juan Friondo

San Marcial 15 - Jrrut. 413801 Donostia

MAI-ONA



SAGARDOA


NORK KUKURRUKUiiii???

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldien



oiartzun

OIHARTZUNAK

Martxoaren 12an hasi eta aste osoan zehar Oartzungo elizan ezkonduentzat garizumako hitzaldiak antolatuta izan dira.

Egiaren ahoz, eta igaz gure parroko agintariari «Herri Esnatzaileen» kritika zorrotz bat egin behar izan bagenien ere, aurtengoz oso pozik gelditu garela esan behar dugu.

Esaldi gutti eta motzetan gaurko gizarte husteldu eta injustiziaz betetako honetan, elizak bizi nahi baldin badu, jokatu behar duen papera garbi agertu digu Aita Bidaniak.

Eta aurrekoei ere bidea errexurratu die gizon bildur gabe honek. Bertako apaizek badakute non ikasia, eta jendea gogoz bildu nahi badute, beren esaldiak ederto mugatuak utzi dizkiete gizon honek.

Pekatuaz jardun zitzaigun lehenengo egunean. Pekatuari neurri berri bat emanaz guk ezagutzen ez dugun edo nahi ez dugun neurketa berri bat emanaz.

Pekatuaz baterik dagoen gizarte hustel batean ez da errexeka pekatuz mintzatzea, baina ausardi handiz, ederki salatu zizkigun berak gaurko pekatuak.

Bere hitzak dira: Pekatuak ez da bakartiaria, ez da nor berak egiten dituen txarkeri bakarrak. Hoiak ez dute gizona kondentzen, hoiak ez dute gizona eta gizartea galtzen.

Pekatuak gizarte dimensioan ikusi behar da, adibidez, gaur egun lurraren explotazioa, kontratisten egoismoa, gizonari askatasun kentzea, Ayuntamentuetako eta hortik goragoko gainuntzeko gizonen autoridadeekin egiten duten abusoa; represioa, herri mailako zapalkuntza, jendearen espetxeratzea, espetxeratuak erabiltzen den jokera gogorra, langilearen explotazioa eta abar.

Pekatuak gizarte mailakoa da, honek hondatzen du gizartea eta ez pekatu soilak.

Bigarren egunean bihurtuta edo konbersioaz jardun zitzaigun eta beti bere salakuntzako bide jatorretik.

Hemen ere garbi adierazi zigun, bihurtuta ez dela aspaldidanik utziak genituen zenbait ohitura elizko berpiztea. EZ, bihurtuta postura jator bat hartzea da. Ez elizatik at utzita genduzkan mezak entzutea, ez berriro sakramentuak hartzen hastea, ez. Hauek ere bihurtetaren zati batzuk dira, baina bihurtuta garbia gaurko gizarte hondatuaren aurrean postura jator bat hartzea da, eta postura jator horren babesean jokatzeko.

Gero bi egunetan itxaropenez aritu zitzaigun. Itxaropena zeren gan dogu gaur egun galduta?

Hemen ere salaketa asko egin behar eta egin ere bai. Managuako herriari Ego Amerika guziak eman zion dirua hamalau minututan Ipar Amerikakuen Vien Namgo gudan potatzen dute.

Espainiako ia aberastasun osoa hirureunen bat familia indartsuek kontrolatzen dute.

Azkenez, ostiralean, Elizak mintzatu zitzaigun, eta neurri dotorez, elizak gaurko gizartearen hustelzean izan duen errua garbi agertu zigun.

Bai, eliza gora begira egon da. Eliza triunfalista izan da, aberatsa edo aberatsen laguna, klerikala eta diktaduraz jantzia; eliza apaizena izan da.

Elizak bakoitzaren jabegoa defenditu du, eta aberatsen nagusigoa lagundu du, eta gaur Juan XXIII garrenak hasi eta Paulo VI garrenak jarraituaz, bide hauek denak urratu nahi dituzte.

Eliza pobrea behar dugu, eliza herrikoa, zapalduen eliza, minbertuen eliza, maitasuneko eliza, eta askotan benetan elizarekin zer ikusirik ez dutenak ejemplo garbia ematen digute.

Honeraino Oartzungo hitzaldien berri; orain entzuleei dagozkien entzundakoa betetzea.

—oOo—

Lartaun elkarteak Otsailaren 25ean, bere urteko biltzar nagusia egin zuen.

Bertako berri aipagarrienak; terrenearen zorra ordaindu dela eta orain geurea dugula nahi duguna egiteko.

Idazkari berria Arantxa Sarasti, eta lehendakari Ordezkoa Jexux M.ª IRIBERRI eta bokal bezala Xabier MADARIAGA autatuak izan dira.

—oOo—

Hilaren 13an Aurtzaro Ikastolako zuzentzaileek beren biltzarra egin zuten.

Gogor ari zaizkigu lagun hauek lanean, urteko bazkideen ordaintzak jasotzea dela, ikastola berria egiteko lekua lortzea dela, urteko behar diren andereño eta irakasle berriak autatzea, eta guk oso garrantziko jotzen dugun lan berezi bat, hau da, estatutoak osatzea.

Ekintza hauek berak diote gehiago gabe, eta eskertu beharra dagoela uste dut talde honen langintza.

Orain lehen esan dudana bezala garrantzizkoa dela derizkiot estatuto hoiak prestatu eta Biltzar Nagusi bat medio, bazkide eta guraso denei erakutsi eta denen artean erabakitzeari.

Gaur egun ikastola berrian talde eta organizazio bezala personalidade baten jabe egin dela uste dut, eta duen garrantzia ikusirik estatuto ihartzun bitartez ihardun beharra daduka; berak mugatu behar dituzte zuzentzaile guraso eta bazkideen boremank, zuzentzaile eta irakasleen autatzeak, bakoitzak diuen eskabideak eta horrelako beste arazo asko.

—oOo—

Egunetik egunera, Oartzungo igandeetako dantzak nahaste handiagoak dakarzi jendearentzat, eta batez ere Oartzuarrentzat.

Uste dugu zentzuzko neurri guztiak gainezko direla. Oartzunen dantza baten beharra egongo zen agian, baina sekulan ez inguruko ganberro guztien biltzarrena. Guk diogu alegia dantza ona dela, baina gaur egun Oartzungo dantzak gazteriaren dibersioa baino, autobusen eta taberna edo ahantzeko lekuko nagusien sakelak betetzeko bidea gehiago jarraitzen duela.

Bestela galdetu herriko gazterari ia zer iritzi ematen duen.

Eta zinez dantza herriko gazteriarrentzat izango da noski, edo izan behar luke.

Agian Oartzunen bailara guztiko dantza jarri behar baldin bada hobeto izango litzake mendi zelai batean jartzea.

Herriko pelota lekuan ez dago lekurik eta egun gazteak kale erdian dihardute dantzan, kalean ezin da ibili igandez, ez oinez eta ez autoz.

Kaleko zuhaitz, eser leku eta beste atsedengarriak, jo eta apurtuak daude, hamalau urteko gazteak mozortuak ikusten ditugu eta gutti izanez esaten duguna bi igandetan aguazilak gazteekin burrukan ere ikusi ditugu.

Barriotako jaietan eta egun askotan ikusi ditugu erromeri eta dantzak, baina gaurko kaleko dantzan agintzen duen giro nabarmena ez dugu inon ikusi.

Ez ote da, bailarako ganberro denak Oartzungo plaza hartzen dutela beren harrokeria eta ganberismo ekintzak betetzeko?

Norbaitek neurriak hartu beharko dituela uste dugu.

ARKAITZ

mendexa

Etxe barriak egiteko lanean asita dagoz.

Abade etxea ta sakristan etxe zarrak bota dituez. Orain, arri ta azpiko lurak kentzen ari dira, etxe barriak egiteko.

Sakristaurentzat ukullua etxetik aparte egin dabe, ta ukullu barrian daukoz abelgorri edo ganaduak.

Etxe zarretako arri ta lurrarekin inguru auzoetarako bide zar guztiak konpontzen ari da jentea. Esaera zarrak diñoan lez, danentzak kalte danik ezer ezjala. Bide zar orrentzako beintzat oso ondo etorri da.

Etxe barriak laister izango doguz, baiña... urik ezta ageri.

Beti laister ekartzeko dan ura ekartzeko lanetan ezta inor asi.

Onak kezkatzen gaitu.

EZKONTZA

Epaila'ren iruan ezkondu zan

gure lagun aundi Iturrazpe baserriko Goikoetxea'tar Sabin, Asterrika'ko Aranzeta'tar Agurtzane'gaz.

Zorionak! Txakartegi'tar Joxe

errenteria

“Ibaika” eta “Ereintza” elkar-tekoek, gau-ikastolaren irakasle eta arduradunek jaialdi berezi bat prestatu dute Errenterian. Apirilak 15 an izango da, arratsaldeko 7,30-an Iztieta'ko Parrokian.

Jaialdi hau, bereziki, gurasoak gogoan harturik antolatua da. Bertan urtean ikasitakoaren berri jasoa ahal izango dute, seme alabek ere bertan parte hartuko bait dute.

Jaialdiaren muina, ipui zahar batetik “pastoral” antzeko antzerkia da. Ume askok antzeztua. Dantzari, soinuari, eta abar ez dira falta.

Hontaz gain, gurasoekiko harremanak estuagotzeko bide egokia izango da, eta elkarriketa aberatsa izango da, dudarik gabe.

Besteak beste, kursoan zehar egindako lana osa dadin, udaldian ere irteera bat egin ohi dute hurrekin Nafarroako herrialdeetan zehar.

Hain zuzen, uda-leku egoki bat izatearren etxe bat eresia dute, uda partean bertan aterpe egokirik haurrek aurki dezaten.

Honek, jakina, gastuak dakartzi, eta laguntza izango duten esperantzan dabilzkigu Ibaika eta Ereintza. Denok aringarritzat geure laguntza luzatzen badiegu, haurrek uda-leku atsegin bat bere eskua izango dute. Merezki duen pausoa eta denon artean lortu beharrezkoa delakoan gaude.

Asmo hau dela eta, bertan otxo batzuek ipiniko dira, bakoitzak ahal duenarekin lagun dezan.

MAHASTI

1973' gauren urteko lehenengo zozketa

miloi bera pezeta


diru aurreantze saritan

diru sartze-epea, jorrailla'ren 7'a arte

Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

Edozein Libretetan sartzen diran mila pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta Libretan dauz-kazun 5 mila pezetakorik aña zenbaki dagozkizu gainera.

ELIZAREN BERRI



“...utz dadila, behingoz, politiko nahiz ekonomiazko agintedunen etxeak, monumentuak, harlosak, bedekatzeta...”

BERE GISAKO IRRATI-EMANALDI ESTRAINU BAT

Joan den asteazkenean, Martxoaren 28an, Ordizian, Bustuntza hauzo berrian, Probintziar Aurrezki Kutxak sukursal berria ireki zuen.

Biharamonean, ostegunean alegia, ordiziar Etxeberrietak, “Radio San Sebastián”ez, bere gisako irratian emanaldi estrainua eman zuen. Honelatzu zioen gure irratilariak: “Katoliko apostolotar erromatarren artean, Ordiziako apaiz-erretore gaztea zegoen; baina, ez zen gauza izan lokal berria bedekatzekotan hisopoa ateratzeko ere; azken mementoan “Agur Maria” bat erreztatzeko ere ez; guztia txit pobre gertatu zen; batak besteari begiratu, eta kalera irten ginen”.

Bere gisako emanaldi estrainua nioen. Alderdi askotariko gero estrainu eta bitxi.

Baina, emanaldi horren hondo-hondoan nabari denaren eta gaur Elizaren gero eta gehiagoan nagusitzen ari den ikuskeraren arteko alde irakurleak berak epai dezan, Martxoaren 17ko “Vida Nueva” aldizkarian agertu zen karta baten laburpena ekarriko dut hona. Espainiar mugimendu katolikoek gotzaiei eginiko karta da. Honetan, bada puntu bat, konkretuki eta zuzen-zuzenean aipaturiko irratian emanaldiak harrotzen duen arazoari buruz-buru doakiona. Puntu hori letranditan doa; baina, garrantzikoena, batari eta besteari darian giroa usaina da.

Hona zer dioten kartak, laburtuz, jakina: Ez dizuegu eskatzen —dio— geure eskuz harturiko konpromiso politikoari zeurren eskuak ezatzerik, ez; baina, uste hau dugu: “gizarte zuzenbideaz eta giza eskubideak onartuak izan daitezzen arduratzen diren” guztiei, “egite konkretuez” lagundu behar zenuketela.

Horrez gero, hona eskatzen dizueguna: —Eliztar predikatuak haintzat har ditzala beti pertsonaren oinarriko eskubideen defentsa eta eragina. Eta arazo nabarmenetan, aplikazio konkretuak egin daitezela:

—Elizaren aldizkari guztiek kontuan har dezatela Kristok Elizari emaniko askapen mandatu hori; —Erligio irakaskintzan ere, kontuan har dadila

askapen alderdi hori, ikasleei bide beretik eraginaz;

—Gauza bera egin dadila heziketa bide guztietan; —Ken daitezela irratia eta telebista erlijioso emanaldi guztiak, ebanjeliozko predikatuaren funtsezko alderdi hori bete ezin badute;

—Hierarkiaren nahiz kristau talderen baten jokatzea, gizarte komunikabideren batek erdizka edo itxuraldatuz emango balu, jakitera eman dadila hori ageri-agerian;

—Elizaren ondasun materialak, askapen bide horretatik doazen mugimenduei laguntzeko izan daitezela;

—Elizaren biltokiak, gizakiak lagunarte askeak egiteko duen eskubidea indartzeko eta bultzatzeko bide gerta daitezela;

—Diozesiar aldizkari edo boletinek argitara eman ditzatela apostolotar elkargoei kasu konkretuez egin litzaketen ageriak: argitara eman, adibidez, karta hau bera eta “Justicia y Paz” batzordeak aurten eginiko dokumentua;

—Utz daitezela alde bat ideologia edo postura politiko berezietan tresna gerta ohi diren elizkizunak; **UTZ DADILA BEHINGOZ, POLITIKA KUTSUKO OSPAKIZUN EDO JAIK, ETA POLITIKO NAHIZ EKONOMIAZKO AGINTEDUNEN ETXEAK, MONUMENTUAK, HARLOSAK BEDEINKATZEA;**

—Utz ditzatela, noizpait ere, eliz-gizonen Parlamenduan, Kontsejutan, Sindikatoetan daduzkaten postuak;

—Harmadako kapeilauek utz dizaiotela nork bere militar hierarkiari, eta lot dakizkiola diozesiar artzaingoari.

Honaino katoliko militanten (JOC, FECUM, VOJ, JEC, CIX, JIC, MCE, MAS eta CEMI) karta. Gainera, esan behar da, beren eskubideak beste dokumentu handietan oinarritzen dituztela: gotzaiek “Elizaz eta Elkarte Politikoa”z emanikoan, “Asamblea Conjunta” zelakoaren konklusioetan, gotzaiek Laikoan apostoladuntz emanikoan.

Ageri denez, beraz, aipaturiko irratian emanaldian agertzen ez den giroa ematen digu beste karta honen. Baina, baliteke, gure Etxeberrietan, oraino giro berri horretara heldua ez izatea.

AMUNSA

Eliztar Geralako...

Elizaren sorrera eta lehen eboluzioari buruz egina dugun azterketatxo honetan agertu zaizkigun puntuak, hauek lirake hitz laburretan bilduta:

- Eliza ez zuen Jesus historikoak sortu. Jesus Nazaretharrak ez zuen geroarekin kezka bereizirik izan.
- Eliza ez dago inola ere Jesusek predikatu zuen Jainkoaren Erreinuarekin berdintzerik.
- Eliza, Kristo bihurtutako Jesusen sinesmenean oinarritzen da.
- Elizak bere burua, Jesus historikoaren jarraitzaile darduka hasera haseratik.
- Jesusen eliza sinestunen elkarte da.

—oOo—

Afirmazio hauek eragozpen edo buruhauste gehiegirik gabe onartuko dituzte batzuek. Argi eta garbi arkituko dituzte. Gehiago arazoitu beharrenez premiarik ere ez dute nabaituko behar bada.

Beste batzuei galdera asko geldituko zaizkie erantzuteke. Norbait larritu ere egin daiteke. Ados ez daudenak ere izango dira ziurrenez.

Galderak aidean gelditze horrek ez gaitu inola ere harritzen. Gure azterketatxo hauek ez diete galdera guztiei erantzuten. Asmoz ere, ez doaz galdera guztiei erantzun nahiez egiñak. Galderak, bakoitzak bereak ohi ditu. Bizi duen egoerak bakoitzari galdera bere-bereak sortarazten dizkio. Bakoitzak bere ikuspegia ohi du, erlijio arazoetan guztiok berdinak izaten ohiituko bagaude edo egon bagara ere.

Euskal Herrian guztiok giro berdintsuan hazi eta heziak izan gara, erlijiozko bizitzari dagokionez bati bat. Egun hogeitabost urte dituen gazteak eta haren aitona beren haurtzaroan erlijio-heziketa berdintsua jaso dutela inor gutxik jarriko luke zalantzan. Gure herrian oso berria da erlijio arazoa, herri mailan bederen. Erlijio heziketari dagokion arazoa ere gaur gaurkoak dira. Prolema honen aurrean egun gure artean nabari den ezina eta patxadarik ezak berak agertzen du lehenengoz darabilkigula esku artean.

Ohar hauek guztiak zera agertu nahiez egiñak ditugu: egungo giro berriak badu bere eragina sinesmen egiztatzekoan. Giro berria, aldakuntza giroa, kezka giroa hor dago. Guztiak gainera. Zaharrentzat bezala gazteentzat, eskuindarrentzat bezala ezkeriarrentzat. Ongi etorria egiten diotenentzat bezala kopeta zimurtzen dutenentzat.

Eta sinesmena egiztatzekoan bere eragina baldin badu, ez du guttiago sinesmen hori aztertzerakoan. Sinesmen hori giza-kategorietan biltzerakoan. Teologiak nahi eta ez ditu aurrean zientzia berria, pentsamolde berriak, mundu ikuskerak berria.

Horregatik, egungo teologiak damaizkun zenbait afirmazio ulertzeko, behar beharrezko zaigu egiztatzat jotzen dituen zenbait presuposituren jabe egitea. Gaur aipatu besterik ez ditugu eginen.

BALDINTZA NAGUSIAK

—Teologiak gaur, bere azterketan-laneraoan garbi bereizten ditu batiak Jesus historikoa eta bestetik Jesus Kristoa, kristau sinesmenaren ardatz den Jesus berpiztua eta Jaun bihurtua. Bereizketa hau, egungo zientziak Ebanjelioak aztertze teologiari ireki dizkion bideen ondoren behar-beharrezkoa da.

Ezin uka gainera teologiarako bere ondorenak izan dituela.

—Ebanjelioak, Itun zahar eta berri guztiak, ez daitezke hitzez-hitzeko esan-nahian uler. Bere esan-nahia egiazkoan ulertu nahi baditugu (hori baldintza nagusia da guretzat gaur Jainkoaren agerpen gerta ahal ditezela) bere kontestu historiko-literarioaren argitan jaso behar ditugu.

—Kristau erlijioa, erlijio historikoa da. Historian gertaturiko ekintza batean oinarritua, historian zehar argitua, eta historikoki bakarrik bizi daitekeena. Kristau sinesmena, sinesmen bada ere, gizon konkretu-historikoak Kristogan duen sinesmena da. Eta gure sinesmena historikoa da, historiko izateak dakarzikien ondoren guztiek. Hau hola ezean, Eliza katolikoaren Egia nagusi bezala arkitzen dugun Tradizioak ez luke ezeren sentidurik.

ELIZAREN GARRANTZIA

Lehenengo artikuluan esaten genduen, zozokeria bat dela sinesmen mailatik landa Elizaz kezkatzea edo eta Eliza aztertzen jardutea.

Sinesmen mailan badu Elizak bere garrantzia. Nahi ta ezko da hain zuzen. Beharrezkotan hori honetan datza nagusiki: Kristau sinesmena, kristau izatea, Itun berriaren rebelazioan oinarritzen da. Rebelazio hori Jesusen jaiotzarekin hasten da, eta bere bizitza, erakutsi, eta heriotzaren berri eman ondoren, berpiztearen sinesmenarekin, eta berpiztearekiko eliztarren erantzunarekin osatzen.

Bata bezala dira besteak beharrezko. Batak besteak gabe ez du sentidurik. Lehen sinestunek sineksi ez balute, ez legoke rebelazioa. Lehen sinestunen sinesmena rebelazio zaigu. Haien ondorengo izanaz bakarrik gintezke gu kristau.

Lehen kristauen sinesmen hura, lehen kristauak Jesusen Pertsonari eta erakutsiei eman zien erantzuna, historikoa da. Urteak zehar osatua. Berpiztea Jainkoaren baieztapen eta ekintza zelaren sinesmenean oinarriturik, galderak sortu ala, giroak eskatu ala eta haren eraginarenpean osatua, egiztatu, idazkietan emana.

Eliza tradizio eta sinesmen honen gordairu eta batez ere osatzaile da. Gordairu eta osatzaile bere irakatsietan, eta batez ere bere bizitzan.

Elizak, horrela ulertu ezean, ez du zentzurik. Sinesmenak ere egia zerranda huts bezala harturik, sentidurik ez duen bezala. Guziz uler gaitz gertatzen da gainera. Ganbarako zoko batean bazterturik utz daitezkeen kutxa zaharra.

Jexux Mari Mujika

zure etxea

USURBILEN

sarrera

50.000 pezetan

ordainketarako
erretasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiarena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aureski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.

CSC

CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkita 426906-429942
DONOSTIA

C. A. P. n.º 106.527/3

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gorostiza

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraui
Urizar
Sigle XX

Kontu emen!

Euki gogoan!

Adiskide ta etrekojaunok!
Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukialderako apaingarri
Elte azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejtzeako aukerakoa
SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»
LANTEGIA-INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)



TEKNIKAREN HISTORIA

III Euskal Antropologi Astea Bilbon

Adrian Celaya Irakaslearekin Hizketan

Bilbon Apirilaren lehen astean, 2.tik 7.AN

ospatzen da Caro Barojaren zuzendaritzapeara hain zuzen, III. Euskal Antropologi astea aste honen eragile eta antolatzaile sutsuenen. Z.A.ko irakurleentzat interesgarri delakoan, rri buruz zenbait xehetasun jakiteko asmotako batengana joan gara kultur ekintza ho-Beraz, Deustuko Unibertsitatean duen langoz. Gizon hau Adrian Celaya irakaslea dugu. lara hurbildu gatzazkio eta solasaldi horrenberri jasotzen dugu lerro hauetan.

Elkarrizketa hau antropologi aste hori hasi baino apur bat lehenago izan genduen, baina irakurleak, ziur aski, amaitzen denean jasoko du. Honela izaten dira gure gauzak. Hala ere, bere garrantzia badutela uste dugu Celaya irakaslearen hitzek.

—Nola sortu zitzaizuen antropologi aste hau eratzeko asmoa?

—Aste honen gaia Julio Caro Baroja jaunak eman zigun. Donostiara joan ginen batean berarekin hitzegiteko asmotan, III.garren aste hau zela-ta, eta ia ia uste gabea, Caro Barojak, guztiz pentsatuta balu bezala, teknikaren historiari buruzko aste bat oso interesgarri izango litzakeela esan zuen. Oso gutxi landua dugun historia bat delako. Baina, jakina, hemen datza aste honen eragozpenik haundienetako bat: espezialistarik ez dugula. Gure asmoak mugatu egin behar izan ditugu honegatik, eta, oraingoz, esku artean ditugun gaiakin egingo dugu lan. Ea horrela lan sakonago eta osoagoak egiten diren gerora.

—Zein gai erabili dira beste urteetan?

—Era guztitako gaiak erabili izan ditugu beste bi urteetan. Aurten bakarrik bururatu zaigu gai soil bati lotzea eta, ahal den neurrian, agortzea. Jakina, ez da berehalakoan agortzen honelako gai bat.

Lehenengo urtea muestreo antzeko zerbait izan zela esan daiteke. Era guztitako gaiak aztertu ziren: hizkuntza, zuzenbidea, filosofia, Cromagnon-go gizona, eta abar...

Bigarrenean gehiago zentratu ginen: hiru mahai borobil egin genituen: bata hizkuntzari eskeina, beste romanizazioari eta hirugarrena gure zuzenbideari.

Aurtengoan, berriz, teknikari lotuko gatzazkio soil soilik. Era askotako teknika da, baina, dena dela, teknika da, eta horregatik beste gauza asko dira ezin sar daitezkeenak.

—Zein da aste hauen helburua?

—Helburua argi dago. Gure Herrian kultur hutsunerik ez bagendu ere, guztiz beharrezko litzake, eta beti egoki, holako kultur ekintzak sortzea, azken batean gure Herriko kulturaren azterketa eta inbestigazioa bait da. Baina, bai bait dakigu euskal bizitzaren alderdi asko daudela oraindik estudiatzeko, hau izan zen gure helburua: euskal kulturaren alderdi eta sail guztiak aztertzea.

—Zer da zuzentzat euskal antropologia?

—Denok egiten diguzue beti galdera berdina. Lehenengo asteari Academia de Ciencias Médicas delako elkartearen babespean egin zelako jarri zitzaion «antropología» izena, beste izenen batekin bildur ez zitezen. Bestalde, gaur egun «antropología» hitzak esanahi zabala du. Kultur antropologia bezala hartzen dugu eta deitura horren barruan sartu ditugu euskal kulturaren sail guztiak. Zuzen ala oker jokatzen dugun ez dakit. Baina oraingoz behintzat ondoren ona eman du.

—Joan den urtekoan euskararen batasunari buruzko mahai borobil bat izan zen eta jende ugari etorri zen. Aurten ez duzue euskaraz ezer jarri. Nola interpreta daiteke hori? Ba ahal du zereginik euskarak antropologi aste horren barruan?

—Euskaraz ezer ez dugula jarri arinegi esana da goela uste dut. Izan ere, lexikografiaz egingo den mahai borobilean esate baterako, bat baino gehiago mintzatuko dela euskaraz espero dut.

Egia da, bestalde, beste gaiak ez direla euskaraz izango. Aurtengo gaia ez da euskara. Baina euskarari buruz egiazko kezka dugula frogatzeko, aurtengo aste honetan ere hizkuntzari dagokion gai bat ez

dugu baztertu nahi izan eta hor duzu lexikografiari buruzko mahai borobila.

Ziur asko, hurrengo asteetan leku zabalagoa egin beharko zaio. Hizkuntzaren estudioa guztiz oinarritzea, guztiz garrantzitsua da, nik uste. Zerbaitek bereizten bagaitu beste inguruko herrietatik, zerbait hori hizkuntza da, batez ere. Beraz, nik uste, hizkuntzaren azterketa behar beharrezkoa dugu. Bizkaiko eta Euskal Herriko historiaren berezitasuna ulertzeko biderik oinarrituena hizkuntza ezagutzea da. Castillarena ez den hizkuntza bat dugu eta honek mentalidade bat markatzen digu. Hemendik abiatu behar da.

—Antropologi aste hau Deustuko Unibertsitatean ospatzen da. Unibertsitatea ahal da antolatzaile? Zer ikusirik ba ahal du aste honetako Unibertsitateko Departamenduren batekin, euskal Departamenduren batekin hain zuzen?

—Deustuko Unibertsitateak izena eta babes, eta bedeinkazioa ere bai, ematen dionez gero, bera dela antolatzaile esan beharra dago. Egia esan, lehenengo astea Unibertsitateetik kanpora egin zen, eta nahigabe bat baino gehiago ekarri zigun honek. Bilboko bi unibertsitateei eta bertako korporazioei eskeini zitzairen honen antolaketa. Guretzat formularik egokiena Unibertsitate ofizialaren eta Deustukoaren arteko lankidetasuna zen. Baina, hau ere esan behar da, Unibertsitate ofizialak ezezkua eman zigun, Letretako Fakultaterik ez zuelako aitzakiaz.

Besteari erantzunaz, ez dago inongo departamenturen menpean, holako departamenturik ez dagoelako, hain zuzen. Denok dakigu hori zertan den. Dagoena zera da: batzorde antolatzaile bat. Unibertsitatearen babespean. Batzorde horretan Unibertsitateko zenbait irakasle dago, eta kanpoko zenbait ere bai, noski.

—Zein eginkizun dute edo izan dezakete Euskal Herriko unibertsitateak aste honetan?


—Gure ustez, aste honetako arkitu behar duena ez da jendetza haundiak erakartzea. Beti da pozgarri publikoaren bera, baina guk nahi gendukeena zera da: unibertsitarien artean interesa izatea eta beraien artean inbestigatzeko gogoia sortaraztea, gure Herriko arazoak aztertze gogoa. Eta biderik egokiena, nik uste, Euskal Ikasketa Elkarte edo Sociedad de Estudios Vascos zelakoaren antzeko zerbait berpiztea litzake. Baina hori gaurkoz ezina denez gero, eta Unibertsitateak ofizialki egiten ez dituen bitartean, ekintza sakabanatuak izango dira, ekintza bakanak. Hala ere, Unibertsitatean babestua egotea oso ongarri, oso positiboa da. Era horretan, unibertsitateak erazago animatuko dira.

—Ondorioei begiratu, ze alderdi on eta ze huts izan dituzue?

—Jendeak oso begi onez ikusi izan gaitu beti. Ugari etorri izan da beti hitzaldi eta mahai borobiletara. Jendea konturatzen dela uste dut gure asmoak jatorrak direla eta euskal kulturaren onerako baizik ez garela ari lanean, euskal kulturak kezkatzen gaituela bakar bakarrik.

Hutsak ere ugari izan direla aitortu beharra dago. Gure akats guzien iturburua dadukagun organizazio sinplea dela esango nuke.

Fruituak aztertzen baditugu, oso lan on eta sakon ondoan —esate baterako romanizazioari buruz



egin zen mahai borobila azken astean, oso kontuan hartzekoa da batez ere gai horretan sakondu nahi duen edonorentzat— beste batzu eskasak izan dira. Baina, gauza, bere horretan hartuz gero, ez dut uste gaizki dagoenik.

—Adieraziko ahal zenidake aurtengo aste honi jarri diozuen gaiaren interes berezia?

—Giza bizitzaren eboluzioa teknikari lotuta dator. Eta gure Herria, gainera, teknikoen lurralde izan da: era guztitako teknikak izan ditugu hemen. Zoritxarrez ez ditugu behar bezala ezagutzen. Euskaldunok harmagile izan gara, olagizon, nekazaritza tresnak egin ditugu, arkitektoak, harginak eta abar izan ditugu. Baina historia, nonbait, irakasleek bakarrik egiten dutelako edo, ez dira dokumentuetan besterik figitu. Baina, egiaz, bada beste zerbait ere historia aztertu nahi bada: teknika. Peninsula osoan gure teknikoek eragin handia izan dute historian zehar. Esate baterako, Gonzalez Echegaray irakasleak azertzen duenez, Bilboko paper fabrikak onenetakoak izan ziren, eta XVIII. mendean, esate baterako, Britaina Handiraino esportatzen ziren hemengo paper margotzak. Horregatik, teknikaren historia honek ikaragarriko balioa du guretzat, teknika zerbait hotza dela uste badugu ere. Ez da horrela.

—Aste honetan azalduko diren gaiak argitaratzeko asmorik ba ahal duzue?

Jakina. Publikatzen ez bada, hemen egiten den guztiak gauza gutxitarako balio du. Bigarren asteko liburua ez da oraindik atera. Datorren hilerako egongo dela uste dugu. Baina hurrengorako ikasi dugu. Orduan berrogei lagunek baino gehiagok hartu zuten parte. Guztien lanak zuzentzeak, gauza nahi baino gehiago atzeratu digu. Baina aste honetakoak lehenago atera ahal izango ditugu.

—Asmorik ba ahal duzue etorkizunari begira?

—Dagokion amaiera eman dizaiogun lehenbizi aste honi eta gero gerokoak. Gero pentsatuko dugu.

—oOo—

Benetan ezin gehiago luza Celaya irakaslearekin izandako elkarrizketa hau. Holako ekintzak ugariago behar genituzke gure Herri honetan. Oraindainokoak akats haundiak izango dituzte, dudarik gabe, baina eginaz eta ekinaz hobetzen dira gauzak.

PATXI GOENAGA